

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2015-2016 ikasturtea**

# **AHOZKOTASUNAREN BALIO PRAGMATIKOA IPUIN KONTAKETAN**

**Koldo Amestoy kontalariaren zenbait ipuinen azterketa**

**Egilea: Eneritz Arrate García Arriola**

**Zuzendaria: Mikel Iruskieta Quintian**

**Leioan, 2016ko maiatzaren 22an**

**EGILEAREN ONIRITZIA**

## A U R K I B I D E A

<b>Sarrera.....</b>	<b>5</b>
<b>1. Marko teorikoa.....</b>	<b>6</b>
<b>1.1. Ipuinak eta ipuingintza .....</b>	<b>6</b>
<b>1.2. Ipuin kontaketa onurak.....</b>	<b>7</b>
<b>1.3. Ipuin kontaketa ezaugarriak.....</b>	<b>8</b>
1.3.1. Etenak .....	10
1.3.2. Abiada (erritmoa eta tempoak).....	11
1.3.3. Bolumena.....	12
1.3.4. Intonazioa .....	13
<b>1.4. Komunikazioaren balio pragmatikoa .....</b>	<b>14</b>
<b>2. Marko metodologikoa.....</b>	<b>15</b>
<b>2.1. Corpora.....</b>	<b>16</b>
<b>2.2. Transkribapenak .....</b>	<b>16</b>
<b>2.3. Aurresateak eta analisisa .....</b>	<b>17</b>
2.3.1. Aztergaiak .....	17
2.3.1.1. Etenak .....	17
2.3.1.2. Abiada.....	18
2.3.1.3. Bolumena .....	18
2.3.1.4. Intonazioa.....	19
<b>3. Lanaren garapena: ipuinen analisisa.....</b>	<b>19</b>
<b>3.1. Puntuazioa eta etenak .....</b>	<b>20</b>
<b>3.2. Abiada.....</b>	<b>22</b>
<b>3.3. Bolumena .....</b>	<b>24</b>
<b>3.4. Intonazioa .....</b>	<b>25</b>
<b>4. Ondorioak eta etorkizuneko lana .....</b>	<b>26</b>

<b>Erreferentzia Bibliografikoak .....</b>	<b>30</b>
<b>ERANSKINA K.....</b>	<b>32</b>
<b>1. ERANSKINA: IPUINAK.....</b>	<b>32</b>
"Azeria eta putrea" ipuina .....	32
"Harri-egilea" ipuina .....	34
"Martintxo eta basajaunak" ipuina .....	36
<b>2. ERANSKINA: ETENEN ANALISIA .....</b>	<b>38</b>
"Azeria eta putrea" ipuina .....	38
"Harri-egilea" ipuina .....	40
"Martintxo eta basajaunak" ipuina .....	42
<b>3. ERANSKINA: ABIADAREN ANALISIA .....</b>	<b>44</b>
"Azeria eta putrea" ipuina .....	44
"Harri-egilea" ipuina .....	44
"Martintxo eta basajaunak" ipuina .....	44
<b>4. ERANSKINA: BOLUMENAREN ANALISIA.....</b>	<b>46</b>
"Azeria eta putrea" ipuina (52-60 lerroak).....	46
"Harri-egilea" ipuina (50-61 lerroak).....	46
"Martintxo eta basajaunak" ipuinak (40-53 lerroak).....	47
<b>5. ERANSKINA: INTONAZIOAREN ANALISIA .....</b>	<b>48</b>
"Azeria eta putrea" ipuina (1-8 lerroak).....	48
"Harri-egilea" ipuina (1-8 lerroak).....	48
"Martintxo eta basajaunak" ipuina (1-10 lerroak).....	49

## AHOZKOTASUNAREN BALIO PRAGMATIKOA IPUIN KONTAKETAN

Koldo Amestoy kontalariaren zenbait ipuinen azterketa

Eneritz Arrate García Arriola

UPV/EHU

Haurrei ipuinak kontatzea oso garrantzitsutzat jo izan da, baita hezkuntza formalean ere. Lan honetan ipuinak kontatzean edota irakurtzean erabiltzen diren ahozko teknikak ikertu dira, hurbilpen teoriko-praktikoa eginez eta grabatutako ipuinen corpusa aztertuz. Corpus hori osatu da Koldo Amestoy ipuin kontalari ezagunaren hiru ipuinekin, eta bertan erabiltzen dituen abiada, eten kopurua, bolumena eta intonazioa aztertu dira. Horiek irizpide teoriko batzuen arabera corpusean auresan dira. Ondoren, entzunaldien bitartez, azaldu da irizpide horiekin bat etorri den edo ez; bat etorri ez diren kasuetan komunikazio estrategien bidez deskribatuz. Horrela, irakasleak estrategiak ipuin kontaketa erabil ditzake, ipuin kontaketa askoz esanguratsuago bihurtuz.

*Gako hitzak: ipuina, kontaketa, bolumena, intonazioa, abiada, etenak, komunikazio estrategiak, balio pragmatikoa*

Contar cuentos a los niños se ha considerado muy importante, incluso en la educación formal. En este trabajo se ha realizado un estudio de las técnicas orales utilizadas al contar y/o leer cuentos, a través de un acercamiento teórico-práctico y el examen de cuentos grabados. En este corpus, formado por tres cuentos del conocido cuentacuentos Koldo Amestoy, se ha analizado la velocidad, la cantidad de pausas realizadas, el volumen y la entonación. Para el análisis se predicen primero los criterios teóricos y después, se ha comprobado si coincidían o no; describiendo por medio de estrategias de comunicación en los casos que no coincidían. De este modo, el docente sabrá cómo utilizar las estrategias al contar cuentos, convirtiéndolo en algo mucho más significativo.

*Palabras clave: cuento, relato, volumen, entonación, velocidad, pausas, estrategias comunicativas, valor pragmático*

Telling stories to children has been considered very important, even in formal education. In this work oral techniques used in story accounting or reading were studied, by means of a theoretical and practical approach examining recorded stories. This corpus of three stories by the well-known storytelling Koldo Amestoy has been analyzed describing speed, breaks made by the storyteller, volume and intonation. To analyze it the theoretical criteria has been predicted and then tested if they agreed or not; describing through communication strategies the cases that did not coincide. In this way, teachers will know how to use strategies when telling stories, turning the story telling into something much more meaningful.

*Key words: story, volume, intonation, speed, pauses, communication strategies, pragmatic value*

## Sarrera

Ipuinak kontatzea da sentitzea, jolastea, dramatizatzea, besteak beste. Aitzitik, noizbait ipuinen bat kontatzen saiatu den edonork primeran daki ipuinak kontatzea zein irakurtzea ez dela zeregin erraza. Ipuin kontalari edo irakurle ona denak badaki ipuinen bidez umeen arreta bereganatzen, momentu batez sorgintzen. Honek haurrak istorioez disfrutatzen duten bitartean gauza desberdinak ikastea ahalbidetzen du.

Haatik, badirudi hezkuntza formalaren esparruan, askotan ipuin kontaketa edo irakurketa umeek hizkuntza garapen (hiztegia, sintaxia...) baliabidea izatera mugatu dela. Baina, Haur zein Lehen Hezkuntzan ipuin kontaketa gozamenezko ekintza moduan erabiltzea ipuinen aukeraketa bezain garrantzitsua da. Haur Hezkuntzan, adibidez, batzuetan momentuko gaiarekin zerikusia duen ipuina etengabeki okitu arte irakurtzen da.

Beste batzuetan, berriz, ipuinak kontatzeari ez zaio behar besteko garrantzirik ematen eta gelan aurki daitekeen edozein ipuin, esate baterako, ikasleek etxetik ekarritakoak eta aldeztu aurretik prestatu gabekoak irakurtzen dira haren egokitasuna, ikasleen interesekoa den kontuan hartu barik eta ipuina kontatzerako unean ahozko tekniken erabilpena eta gorpuz-adierazpenari asko erreparatu barik; eta disfrutatzeke denbora-tarte hori ekintza aspergarrian eta zentzugabea bihurtzen du.

Gauzak horrela, Gradu Amaierako Lan hau 2013/2014 ikasturtean egindako hurrei ipuin sorkuntzazko Gradu Amaierako Lanaren jarraipena da (García Arriola, 2014). Esku artean duzun beste lan honetan, berriz, ipuin sorkuntzatik ipuin kontaketa igaro naiz, ipuinak kontatzean edo irakurtzean ahozko tekniken hurbilpen teoriko-praktikoa eginez.

Horretarako, Koldo Amestoy ipuin kontalariaren hiru kontakizunen grabaketak erabiliz hartu dira eta horietan Amestoyk erabiltzen dituen bolumena, intonazioa, erritmoa eta eten kopurua aztertuta. Ahozko teknika hauek, lehenik eta behin, ikerketa teoriko baten bidez aurrean dira, ondoren ipuinen entzunaldiaren bidez hauek baieztauz edota bat ez etorritako kasuetan kontalariak erabiliz komunikazioa estrategia deskribatuz eta azalduz.

Modu honetan, Koldo Amestoyk ipuin kontaketa erabiltzen dituen ahozko estrategien deskribapen bidez, irakasleek eguneroko ipuin kontaketa erabil ditzaketen

estrategiak ezagutuko dituzte eta eguneroko ipuin kontaketa aplikatu, kontaketa askoz esanguratsuagoa eginez.

Lan honen hurrengo atalak hauek dira:

1. Marko teoriakoa: ipuin kontaketa erabiltzen diren ahozko tekniken hurbilpen teorikoa egin da. Honetan, ipuin kontaketa onurak, ezaugarriak eta ahozko tekniken hurbilpen teorikoa-praktikoa egin da.
2. Marko metodologikoa: beste atal honetan, berriz, lanaren corpusaren ahozko irizpideak analizatzeko jarraituko diren urratsak ezarriko dira.
3. Ipuinen analisia: ipuinen azterketan etenen, abiada, bolumen eta intonazioan aztertutako ezaugarrien eta hauen balio pragmatikoa edo estrategia komunikatiboa identifikazioa egin da.
4. Ondorioak eta etorkizuneko lana: jasotako emaitzak eta ondorioak biltzen dira.

## **1. Marko teorikoa**

### **1.1. Ipuinak eta ipuingintza**

Ipuina gertakizun sinpleak dituen kontaketa laburra da, eta bere funtzioen artean norbere kultura ezagutzen laguntzea eta orokorrean mundua ulertzea daude (Jiménez, Gómez, Aguado eta Ballesteros, 2001). Ipuingintza (kontalaritza), bere aldetik, "kontu edo ipuin bat jendaurre batean eta momentu jakin batean, bere burua kontalaritzat duen baten eskutik eta ahoz gauzatzen den hizkuntza" jardura bat da (Díaz de Gereñu, 2005:32), eskola-maila eta adin guztietan erabiltzeko baliagarria dena (Bryant, 1984).

Hala ere, Díaz de Gereñuk (2005) ipuingintzaren fenomeno batez ohartarazten du: ikasleak nagusitu eta idazmen gaitasunez jabetu ahala, gelan ahozko kontaketa presentzia murrizten doa, ipuin kontaketa jardura gehienbat irakurtzen ez dakitenei bakarrik murriztuz. Hezkuntza-mailetan gora joan ahala, Díaz de Gereñuren (2005:34) ustez ahozko kontaketa jardura edota lanketa murrizten da:

Ipuin edo narrazio laburren lanketa eta sormena idazketaren ikasketa prozesuarekin ia batera egiten den jardura da, eta beharrezko hezkuntza osoan jarraitzen du, batxilergo barne. Ahozko kontaketa, berriz, alderantzizko bidea egiten du: haur txikiei ahoz kontaketa zaizkie ipuinak, baina adinean aurrera egin ahala, desagertu egiten da ahozko kontaketa hutsa irakurketa jardueratik, bai gozameneko ekintza bezala eta bai irakaspen objektu bezala. Zergatik hainbeste garrantzi kontaketa idatzizko moldearen lanketa eskolazko prozesu osoan zehar, eta ez hainbeste kontu horien ahozko moldearenari?

Eskolan, idatzizko gaitasuna ahozkoaren gainera dago; baina, ahozko gaitasuna idatzizkoa bezain garrantzitsua da. Hala ere, bai idazmen zein ahozko gaitasuna eguneroko bizitzan eraginkortasunez jarduteko ezinbestekoak dira, une horretan umeak inguruaren elkarrekintzarako beharrezkoak dituen hizkuntza egiturak, hiztegia; horrez gain, haurrak sentitu, adierazi, konbentzitu eta sozializatu dezake.

## **1.2. Ipuin kontaketa onurak**

Ipuin kontaketa onurak umeen hizkuntza-garapenaz haratago doaz. Hori adierazten du Padovanik (1999) ikerketa baten ondorioak azaltzen dituenean. Lan horretan aztertzen du ikasgela batean, sistematikoki, ipuin kontaketaekin hastean talde-dinamikan aldaketa handiak antzeman zituela. Esaterako, irakasleekin loturarik ez zuten ikasleak istorioen bidez erakartzea lortu zuen eta irakasle eta ikasle horien artean lotura sendoagoa sortu zen.

Gelan, ikasleen ezaugarriak kontuan izanda eta ipuin kontaketa saioak diseinatu, umeen egunerokotasunean beharrezkoak diren nozio eta kontzeptu batzuk transmititzen dira. Hori dela eta, de Sousa (2012) ipuina eragile hezitzaile ezin hobea dela dio. Ipuin kontaketaz gain, hezkuntza literarioak ere pertsonaren heziketan lagundu dezake Colomerren (2001:5) ustez, errealitatea ulertzeko baliabideak eskaintzen dituelako.


Ipuinak, beraz, "balore hezitzailea du umearentzat; mundua, bere zentzu zabalean, ezagutzen laguntzen diolako eta ezagutza honen bidez hizkuntza ere eskaintzen diolako" (Elorza, 2009a:4). Umeentzat ipuinak pozibide iturriak dira, haien ezagutza modua eta haien barne bizitza aberasten dutelako eta haien sormena erraztu egiten dutelako (Jiménez, Gómez, Aguado eta Ballesteros, 2001).

Aitzitik, ipuin kontaketa dituen abantailak baliagarri izan daitezkeen, kontuan izan behar dugu horien helburu nagusia ondo pasatzea edota interesa sortzea dela. Horretarako, ezinbestekoa da kontakizunean giro atsegina eta magikoa sortzea (Elorza, 2009b:66). Padovanik (1999) adierazten du, giro hori sortu eta zabaltzeko, ikasgela dela gunerik aproposena, beste guztien gainetik. Horretarako, astero ipuin kontaketa tarte bat programatzeak gai kurrikularrak lantzeko aukera izateaz gain, ikasleei gozamenerako momentua eskaintzea proposatzen du. Pello Añorgak (2012:49) bere aldetik espazioak paper funtsezkoa jokatzen duela dio, "espazioak zer-nolako harrera eskaintzen digun, horrek guztiak baldintzatu lezake saio bat. Horretarako, entzulearen testuinguru hurbila ezagutzea garrantzitsua izango da guztiz. (...) Haurrari kontatu nahi badiozu, lehenik eta

behin, ezinbestekoa izango da haurraren testuinguru hurbila ezagutzea, hots, haurraren unibertso afektiboa".

### 1.3. Ipuin kontaketa-aren ezaugarriak

Ipuinen kontaketa-aren egiturari dagokionez, hiru elementu nagusi daude: istorioa bera, kontalaria eta entzuleak (ikus Irudia 1). Ondo aukeratutako istorioak, kontalari on batek kontatuta, umeen arreta lortzen du, baldin eta hiru elementuak harmonian baleude (Raines eta Isbell, 2000).



Irudia 1. Ipuin kontaketa-aren elementuak

Ipuina era egokian kontatzea oso garrantzitsua da, eta Larrinaganek (1992) ere horrela adierazten du; alegia, ipuinak kontatzeak hizkuntza-aren egitura zehatz bat dakarrela berarekin, ez baitira gauza bera ipuinak irakurtzea eta kontatzea. Hurrengo taulan ipuina irakurtzeak eta ipuina kontatzeak zer ezaugarri desberdin dituzten azaltzen da:

IPUINA IRAKURTZEA	IPUINA KONTATZEA
Ipuinak irudiak ditu eta kontaketa erabil litezke.	Kontalaria gorputz hizkuntza osoaz baliatu daiteke: besoak mugitu, jesarri, altxatu... (Bryant, 1984:13).
Irakurlea testuari lotuta dago, bertan dagoena irakurri behar du (Bryant, 1984:13).	Ez dago testuari lotuta eta entzuleengan behatutakoaren arabera, ipuina moldatu dezake, kontaketa espontaneoagoa bihurtuz (Bryant, 1984:13).
Oinarrizko teknika batzuk ikasita, irakurraldia errazten da umeen arreta berenganatzeko trikimailuak non erabili behar diren ezarriz.	Ipuina prestatzeak denbora gehiago eskatzen du.
Umeak etxean irakurtzeko aukera eskaintzen du.	Kontaketa momentuan ematen da "hemen eta orain"-era mugatuz. Behin ipuina kontatuta haurrak ez dauka erreproduzitzeko aukerarik.

Taula 1. Ipuina irakurtzea eta kontatzearen desberdintasunak.



Umeek nahiago izaten dute ipuinaren kontaketa ipuinaren irakurmena baino. Honen arrazoia kontalariaren askatasuna da; izan ere, kontalaria, ahotsaz gain, bere gorputz-hizkuntza osoaz ere baliatu daiteke. Gainera, ez dago kontatzen dabilen testuari lotuta, eta ipuina molda dezake, entzuleengan behatutakoaren arabera, ahozko kontaketa ipuin irakurmena baino espontaneoagoa bihurtuz (Bryant, 1984). Hala ere, irakurketa ozena modu esanguratsuan egiten denean, ipuin kontaketa eta irakurketa ozenaren arteko muga bereiztea jarduera zaila bilakatzen da eta kontaketa estrategia asko erabil daitezke.

Ipuin kontaketa dagokionez, Larrinaganek (1992:505) honako hau adierazten du: "ipuingintzan aldaketa artebide bilaka daiteke, bariazio eta bertsio propioak gauzatzeko aukera ematen baitzaigu. Egia esanda, ipuingilea (ipuinlaria) transformazio sistemaren erdi-erdian aurkitzen da: jasotzailearen arabera moldaerak burutu ditzake, kultura-erreferentzia berriak gauzatzeko (tokikoak, agian); esarak, etabar luze bat". Honek ipuinak gure ikasleen beharrian eta jakin-minetara moldatzeko aukera eskaintzen digu irakasleoi.

Ipuinaren transformazio hori balio pragmatikoaren bidez egiten da, besteak beste. Pragmatikak esaldien ekoizpen eta adierazpena testuinguru anitzetan ikertzen du, hots, hiztunaren komunikazio egoerak (Herrero, 2006) eta egoera horien hizkuntza erabilera. Pragmatikak komunikazio egoeraren alderdi extralinguistikoak ere aztertzen ditu: igorlea, hartzailea, komunikazio asmoa (*intención comunicativa*), berbazko testuingurua (*contexto verbal*) edo munduaren ezagutza (Escandell<sup>1</sup>, 1996:14).

Ipuin kontaketa, pragmatikak erakusten du literaturak hizkuntzaren ohiko funtzionamendua arautzen duten printzipioekiko haustura kognitiboa (*ruptura cognoscitiva*) eragiten duela, bai forma eta edukiei dagokienez (Escandell, 1996). Gauzak horrela, komunikazio literarioan ez dira ohiko hizkuntzaren erabilera ezartzen diren baldintzak betetzen. Izan ere, literatura-lanen esaldiek ez dute komunikazio arruntaren ezaugarri ilokutibo berdinak (Escandell, 1996). Modu honetan, ohiko erregelak bortxatzen (*suspensión temporal*) dira (Escandell, 1996). Lan honetan, erregelen bortxaketa horri balio pragmatikoa esango diogu. Ipuin kontaketa, ohiko erregelen bortxaketa hori hurrek berehala ikasten dute, izan ere, haur batek ondo hitz

---

<sup>1</sup> Oharra: Escandellen terminoak nik itzulitakoak dira. Parentesi artean dauden hitzak jatorrizko hitzak dira.

egiten jakin gabe, panpinekin jolasten, ahotsa aldatzen ikasten du, nagusiek horrela egiten badute.

Modu honetan, egunerokotasunean erabiltzen diren ahozko komunikazio erregelen hausturarekin eta ipuin kontaketaen estrategiez baliatuz, irakasleak umeak ipuinean murgiltzea lortzen du. Ipuin kontaketa zentzuzkoa izan dadin erabiltzen diren estrategiak (bolumena, ahoskera, azentua, intonazioa, etenak, abiada, gorputz mugimendua zaintzea...) koherentziaz konbinatzea ezinbestekoa da. Hona hemen ahozkotatasunarekin zerikusia duten nolakotasunak eta definizioak eta beraien balio pragmatikoaren azalpena<sup>2</sup>.

### 1.3.1. Etenak

Etenaldiak izan daitezke laburrak edota luzeak eta edozein ipuin mota ekoiztean ezinbestekoak dira. Gaminde et al.ek (2014) adierazten duten moduan, etenaldiak arrazoi desberdinek eragiten dituzte: fisiologikoak (arnasa hartu beharra), semantikoak (esangura), logikoak (kateatzea), psikologikoak (arreta) eta pragmatikoak (estrategia komunikatiboak). Azken hauek, pragmatikoak, berebiziko garrantzia dute ipuinen ahozko kontaketaen estrategia komunikatibo moduan erabiltzen direlako. Estrategia komunikatiboaren kasuan, ez da gauza bera esatea:

(1) Atzo /<sup>3</sup> **ludotekan egindako marrazkia** aurkitu zuen. //

(2) Atzo / **ludotekan** / egindako marrazkia aurkitu zuen. //

Hitz berdinez osatutako bi esaldi hauetan ikus daitekeenez, segun eta etenak esaldietan non egiten diren mezu desberdinak adierazten dituzte. (1) adibidean esaldiaren objektua (*ludotekan egindako marrazkia*) nabarmendu nahi da. (2) esaldian, berriz, lekua (*ludotekan*).

Esaldietan etenak leku batean edo bestean egiteak kontatu nahi denaren esanahia alda dezake. Hala ere, etenek esaldiaren esanahia aldatzeaz gain, etenen luzeraren arabera, esaldiaren esanahia transmititzeaz gain, entzuleari emozioak eta bizitasuna ere helarazi diezazkioke. Izan ere, ipuin kontaketaen, eguneroko mintzairan bezalaxe, “isilune luzeek testuaren estilo arranditsua nabarmentzen dute. Bat-bateko testu batean oso laburrak eta ebakiak badira, urduritasunaren seinalea izan daitezke” (Gaminde et al, 2014:95).

<sup>2</sup> Aurrerago aurkezten diren definizioen inguruko azalpenak Mikel Iruskietak emandako azalpenei eusten dira. Bolumen, intonazio, abiada eta eten definizioak eta azalpenak ipuinen arau sinpleen ikuspuntutik emango dira. Beraz, errealitatearen azterketa konplexuagoa egiteko Gaminde et al.era (2014) jotzea gomendagarria litzateke.

<sup>3</sup> Esaldian //marka dagoen lekuetan etenaldi luzea dagoela esan nahi du, /marka dagoenean, berriz, etenaldi laburra.

(3) Orduan, Basajaun guztiak Martintxoren atzetik korrika abiatu dira. **Martintxok, hantxe urrunago, beheiago, korrika segitzen du.** Ahal duen bezala, bere bota handiak soinean.

(3) adibidearen bigarren esaldiaren puntuazio ikurrek esaldiaren erritmoa moteldu egiten dute. Modu honetan, gertakari azkarra (Martintxoren esetsia) kamara geldian kontatu egiten da, hartzaileengan tentsioa eta urduritasuna eraginez.

Irakurketa arauen arabera, testu baten komaren ostean eten labur bat egin behar da, eta puntua denean, berriz, eten luzeago bat. Hala ere, ipuin kontaketa edo irakurketa, batzuetan, etenen arau horiek ez dira beti horrela betetzen. Horren ordez, eta entzuleengan emozioak pizteko helburuarekin, arau horiek bortxatu (balio pragmatikoa) eta etenen puntuazio ikurrei ez dagozkien etenak egiten dira.

(4) Sartu da hantxe, // zuhaitzen azpian, // oihan iluneko zuhaitzen azpian, / salbu da! (Balio pragmatikoa)

(4) adibidean, koma dagoen bi lekuetan, etenaldi laburra egin beharrean, etenaldi luzea egiten da. Honen bidez, entzuleengan misterioa sortarazten da. Ipuina kontaktzen ari den pertsonak *sartu da hantxe* esan ondoren isilune luzea eragin du eta horrela entzulearengan *non* galdera nabarmentzen du.

### 1.3.2. Abiada (erritmoa eta tempo)

Abiada ipuinaren kontaketa gertaera bakoitzaren erritmoak eta denborak markatzeko erabiltzen diren teknikak dira, besteak beste era mantsoan, arrapaladan, zorrotz eta leun berba egitea. Ipuin kontaketa, abiada estrategikoki erabiltzeak asko balioesten du, horren bidez atmosfera eta gertakari desberdinen arteko bereizketak egitea ahalbidetzen duelako.

Abiada kontzeptuaren barruan, erritmoa eta tempo kontzeptuak aurkitzen dira. Gaminde et al.en (2014) hitzetan erritmoa hizkuntzaren fonologiaren propietatea da eta hizketaren denbora-egiturarekin lotuta dago. Tempo, ostera, hiztunaren ezaugarriekin eta hizketa egiten den baldintzekin lotuta dago.

Tempo, erritmoaren antzera, denbora tarte batean egiten den soinu-produkzioarekin lotuta dago. Bi modu daude hiztunak egiten dituen silaba kopuruak kuantifikatzeko: abiada orokorra eta artikulazio-abiada. Abiada orokorra kuantifikatzeko testuaren denbora osoa kontuan hartzen da (etenaldien denbora barne), artikulazio-abiada kuantifikatzeko, berriz, etenaldien denbora kentzen da (Gaminde et al, 2014). Beraz,

abiadaren neurketa egiten denean, etenen luzera kontuan hartzeaz gain, denbora unitateko esaten diren silaba kopurua ere kontuan hartu behar dira (Eizagirre, 2006).

(5) Peio, erosketak egin ostean, **etxera** abiatu da.

(6) Aita seme-alabak parkean jaramonik ez egiteaz nekatuta, honako hau oihukatu die: **E-txe-ra!!**

(5) kasuan, *etxera* hitzean ez da etenik egiten. (6) adibidean, berriz, *e-txe-ra* hitzean bi eten egiten dira, silaba artean hitzaren ebakera normala bortxatuz eta agindua dela komunikatuz (balio pragmatikoa).

### 1.3.3. Bolumena

Kontalariak edo irakurleak ipuina kontatzerakoan entzule guztietara heltzeko ahotsaren hedadura da. Beraz, Gaminde et al.ek (2005) adierazten duten moduan, bolumena inguruaren baldintzen (espazioaren tamaina, entzule kopurua eta bertan egon daitezkeen zaraten) arabera, egokitu behar da. Hala ere, bolumen altuegia edo baxuegia hedatzeak entzumena zaildu dezake, kontatzen denaren ulermena gutxituz.

Haatik, bolumena kontalariak entzuleengana heltzeko ahotsaren hedadura maila izateaz gain, kontaketa beran erabiltzen duen baliabidea ere bada. Teorikoki kontaketatik normalean zerbait nabarmendu nahi badugu, galdegaiaren bolumena batz besteko bolumen fuertegoa izaten da, baina balio pragmatikoaz baliatuz beste gauza askotarako ere erabiltzen da: pertsonaiak ezberdintzeko, sentimenduak adierazteko... Hurrengo esaldiak aztertzen badira, galdegaia aditz nagusiaren aurrean kokatzen dela ikus daiteke:

(7) Nik **etxera**<sub>L</sub><sup>4</sup> etorri nahi dut.

(8) Etxera **nik**<sub>L</sub> etorri nahi dut.

(9) Nik ez dut **etxera**<sub>L</sub> etorri nahi.

(10) Etxera ez dut **nik**<sub>L</sub> etorri nahi.

Baiezko esaldietan, (7) eta (8), galdegaia aditz nagusiaren aurrean kokatzen da bolumen igoera adierazteko. (7) esaldian subjektuak nora joan nahi duen garrantzia dauka eta (8) esaldian, berriz, nork joan nahi duen. Ezezkoetan, (9) eta (10), aldiz, galdegaia aditz laguntzailearen eta nagusiaren artean aurkitzen da eta bertan bolumen igoera ematen da.

(11) **Nik**<sub>L</sub> etxera joan nahi dut. (Balio pragmatikoa)

(12) Nik joan nahi dut **etxera**<sub>L</sub>. (Balio pragmatikoa)

<sup>4</sup> <sub>L</sub> ikurra dagoen lekuan, hizlariaren bolumenak gora egiten duela esan nahi du, .

(11) esaldian bolumen igoera *nik* hitzean ematen da, hizlariak subjektuari garrantzia eman nahi diolako. Aitzitik, (12) esaldian *etxera* hitzan bolumenak gora egiten du, hizlariak subjektuak nora joan nahi duen nabarmendu nahi duelako. Beraz, ahozkoan galdegaiaren araua bortxatu daiteke, bolumenaren balio pragmatikoari esker, besteak beste.

#### 1.3.4. Intonazioa

Intonazioa zer den ulertzeko, hurrengo esaldiak ozen ahoskatzea aproposa izan daiteke irakurleak aurrerago azalduko dena ulertzeko:

(13) Marrubiak<sup>↑5</sup> ekarri ditu.↓

(14) Marrubiak<sup>↑</sup> ekarri ditu?<sup>↑</sup>

(15) Zer,<sup>↑</sup> egin (al) duzu?<sup>↑</sup>

(16) Zer<sup>↑</sup> egin duzu? <sup>⊥</sup>

Irakurleak esaldiak bereizteko bi tonu-aldaketa erabili ditu, eta aldaketa horiei esaldi enuntziatiboa (13. esaldia) eta galdera (14., 15. eta 16. esaldiak) bereiz daitezke. Hala ere, galdera esaldietan intonazioa galderaren egituraren arabera aldatzen da. (13) adibidean, *ditu* beherazko intonazioaz egiten da. (14) eta (15) adibideetan eta bai/ez galderak direnak, *ditu* eta *duzu* hitzetan intonazioak gora egiten du. (16) esaldian, aldiz, *zer* hitzean intonazioak gora egiten du eta bertan du gailurra.

Intonazioa prosodiaren bidez transmititzen diren informazio linguistikoaren barruan kokatzen da (Gaminde et al, 2014). Intonazioaren bidez, esaldiaren osagaien bat fokalizatzeke estrategia batzuk erabiltzen dira. Honako adibideetan euskara estandarrean erabiltzen diren estrategia batzuk aurkezten dira:

(17) Marrubiak<sup>↑</sup> ekarri ditu.↓

(18) Ekarri ditu <sup>⊥</sup> marrubiak.↓

(19) Ekarri egin<sup>↑</sup> ditu <sup>⊥</sup> marrubiak.↓

(17) esaldi hau esaldiak egiteko modurik arruntena da. Esaldian aditz aurreko osagaia fokalizatzen da, hots, *marrubiak*. (18) kasu honetan, foko-aldaketa ordena aldaketaren bidez adierazten da eta dagoeneko *ekarri dituela* adierazi nahi da. (19) esaldi honetan, *egin* hitzaren txertaketaren bidez, *sartu* aditza da fokalizatu nahi den osagaia.

<sup>5</sup> ↑ ikurra dagoen lekuan, hizlariaren intonazioak gora egiten duela esan nahi du, ↓ ikurra dagoenean, berriz, intonazioak behera gogor egiten duela eta <sup>⊥</sup> ikurra dagoenean, aldiz, beherazko intonazioa eta suabe.

Beraz, intonazioa da kontakizunaren gertakarien arreta deitzeko kontalariak erabiltzen duen baliabidea, kontatzen dagoen hori oharkabean pasa ez dadin (Gaminde, 2004). Teorikoki esaldiaren gorako intonazioa galdegaian eta beherazko intonazioa aditz nagusia eta gero ematen da. Intonazioaren frekuentziaren aldaketa hori egiteko tonu-bariazioa erabiltzen da. Hizkuntza bakoitzak, berez, badauka esaldien intonazioa normaltzat edo ohikotzat hartzen den tonu-aldaketa eta ohiko ahozkotasunean naturaltzat hartzen den intonazioa betetzen ez denean, kontrakotasuna (balio pragmatikoa) gauzatzen da kontalariaren partetik entzuleen arreta berenganatuz. Esate baterako<sup>6</sup>:

(20) Bihar↑ Mikelekin↑ joango da↓ mendira↓.

(21) Bihar↑ Mikelekin↑ joango da **mendira**↑. (Balio pragmatikoa)


(20) esaldian subjektua norekin joango den nabarmendu nahi da eta horregatik, *Mikelekin* hitzan intonazioak gora egiten du eta bertan du gailurra. (21) esaldian, berriz, araua bortxatzen da eta aditz ondorengoa (*mendira*) markatzen da.

#### 1.4. Komunikazioaren balio pragmatikoa

Bolumen, intonazio, abiada eta etenen hizkuntzaren ahozko komunikazioaren elementu hauen erabilera pragmatikak aztertzen ditu (ikus Irudia 2. Hizkuntzaren erabilera eta pragmatika). Komunikazioa bi pertsona edo gehiagoren artean sortzen den harremana da, eta aho-hizkuntzaren kasuan, ezinbestekoa da, hizkuntza bera erabiltzea. Hizkuntza hainbat elementuz osatuta dago, sintaxia, semantika eta fonologia, besteak beste. Hizkuntzaren erabileran intonazioa, bolumena, abiada eta etenak bezalako elementuek parte hartzen dute, hartzailearengan efektu bat lortuz. Pragmatikak komunikazioaren ekoizpenean eta interpretazioan parte hartzen duten elementuen eta hizkuntzaren erabileraren ikerketa egiten du (Herrero, 2006:25). (4), (11), (12) eta (21). adibideetan komunikazioaren elementuen erabilera desberdinen arabera, balio pragmatikoak hartzaileengan izan duen eragina aztertzen du.

<sup>6</sup> ↑ ikurra dagoenean, intonazioak gora egiten duela esan nahi du. ↓ ikurra dagoenean, berriz, behera.

KOMUNIKAZIOA



Irudia 2. Hizkuntzaren erabilera eta pragmatika

**2. Marko metodologikoa**

Lan honen helburua irakasleok ipuinak kontatzen ditugunean kontuan hartu beharreko ahozko komunikazio estrategiak deskribatzea da, Koldo Amestoy ipuin kontalariaren Bazen Behin (Amestoy eta Martinez, 1992) bildumako zenbait kontakizun aztertuz.

Lehenik eta behin, (i) Bazen Behin bildumatik hiru ipuin grabaketa hautatuko dira horien analisia egiteko. Ondoren, (ii) hiru ipuin grabaketen transkripzioa egingo da. Horren ostean, (iii) corpuseko grabaketen letrak, hitzak eta sintagmak aztertuz, Amestoyk ipuin kontaketan erabiliko dituen bolumena, intonazioa, abiada eta eten kopuruaren auresateak egingo dira marko teorikoaren ahozko teknika-irizpideen deskribapenean oinarrituz. Eta geroago, (iv) entzunaldien bitartez, auresandakoa eta kontalariak erabili dituen irizpideak bat etortzen diren aztertuko da.

Hurrengo irudian (ikus Irudia 3. Marko metodologikoan jarraitutako urratsak), lanean jarraitutako urratsen laburpena ikus daiteke.

- |      |                       |
|------|-----------------------|
| i.   | Corpusaren aukeraketa |
| ii.  | Transkribapenak       |
| iii. | Auresatea             |
| iv.  | Analisia              |

Irudia 3. Marko metodologikoan jarraitutako urratsak

Modu honetan, ipuinetan erabiltzen diren estrategien deskribapenak eginez, irakasleek edota ipuin kontalari edo irakurleek eguneroko ipuin kontaktetan erabil ditzaketen estrategiak ezagutuko dituzte eta eguneroko ipuin kontaktetan aplikatu, kontaketa askoz esanguratsuagoa eginez.

## 2.1. Corpora

Ipuinen kontaktetan erabiltzen diren tekniken artean gorputz mugimenduak ere garrantzia adierazgarria du, baina lan hau ahotsak eskaintzen dituen tekniken azterketara mugatuko da, grabazioak aztertzen baitira. Beraz, corpora entzute aitortua duen Koldo Amestoy ipuin kontalariaren hiru ipuin osatzen dute, konkretuki, "Azeria eta Putrea", "Harri-egilea" eta "Martintxo eta Basajaunak" ipuinak. Hauetan kontalariak iparraldeko hizkera erabiltzen du eta batzuetan, musika du. Ipuinak egokiak dira bai Haur Hezkuntzarako, laburrak direlako, zein Lehen Hezkuntzako ikasleentzat hizkuntza aberasten dutelako. Izan ere, Analitza programaren<sup>7</sup> bidez egindako analisi automatikoak hiru ipuin artean inguruko honako datuak atera dira:

- Guztira 1264 hitz dituzte, horietatik 444 hitz ezberdin.
- 90 aditz ezberdin erabiltzen dira.
- 38 adjektiboen artean, 26 adjektibo ezberdin daude.
- 140 izen ezberdin esaten dira, asko sinonimoak.

Ipuinen denbora eta hitz kopuru zehatzak hurrengo Taula 2an aurkezten dira:

	Denbora (seg)	Hitzak
<b>Azeria eta putrea</b>	240	386
<b>Harri-egilea</b>	243	340
<b>Martintxo eta basajaunak</b>	363	538

*Taula 2. Ipuinen denbora eta hitz kopurua*

Corpusa osatzen duten hiru ipuinak eranskinetan aurki daitezke (ikus 1. ERANSKINA: IPUINAK).

## 2.2. Transkribapenak

Corpusa osatzen duten ipuinen transkribapena egiteko grabazioak entzunez egingo dira. Transkribapenak egiteko Aurrekoetxearen (1997) irizpideak oinarritzat hartuko dira,

<sup>7</sup> URL: <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/analitza.php?lang=en>



zehatz mehats jarraituko ez diren arren. Hala ere, orokorrean, hurrengo irizpide hauek jarraituko dira:

- Transkribapena euskara batuan egingo da. Beraz, hitzetan euskara batuan onartuak ez dauden hitzetan moldaketak egingo dira, hauek oso esanguratsuak ez baldin badira eta lan honen corpusaren ikerketa baldintzatzen ez badute.
- Mintzatzaile desberdinen arteko elkarrizketak ematen direnean, hiztun bakoitzak lerro bat hasiko du, hasieran marra (-) idatziz.
- Transkribapena ahalik eta zehaztasun handienez egingo da.

### 2.3. Aurrebateak eta analisisa

Corpuseko grabaketen letrak aztertuz, Amestoyk ipuin kontaketa erabiltzen dituen bolumena, intonazioa, abiada eta eten kopurua aztertuko da marko teorikoan ahozko teknika-irizpideen deskribapenaren arabera, kontalariak erabil ditzakeen teknikak aurrenez. Geroago, entzunaldien bitartez, kontalaria irizpide horiekin bat etorri den eta bat etorri ez den kasuetan, komunikazio estrategien bidez, azalpenak emango dira.

#### 2.3.1. Aztergaiak

Aurrebateak eta analisiaren azpiatal honetan, hiru ipuin grabaketetan ahozko teknika-irizpideen analisisa egiteko jarraituko diren pausuak azaltzen dira.

##### 2.3.1.1. Etenak

Kontalariak ipuinaren puntuazio ikur bakoitzari dagokion etena errespetatzen duen egiaztatu nahi da. Puntuazio ikur eta etenen artean kontrakotasunak badaude, erlazio taula bat eratuko da. Horretarako, audioak entzunez aztertuko dira eta/ikurraren bidez adieraziko dira. Etenak luzeak direnean, // ikurra erabiliko da. Etenak, aldiz, laburrak badira/ikurra erabiliko da.

Modu honetan, kontaketa bakoitzean dauden puntuazio ikurrak eta Koldo Amestoy kontalariak egiten dituen puntuazio etenak aztertuko dira. Horretarako, puntuazio etenak bi multzotan sailkatuko dira: puntuazioa laburra eta puntuazio luzea. **Puntuazio laburrean** eten laburrak egin behar direla arautzat hartuko da eta koma (,) puntuazio-ikur moduan hartuko da. **Puntuazio luzean** kasuan, eten luzeak egin behar direla arautzat hartuko da eta puntua (.), hiru puntuak (...), bi puntuak (:), puntu eta koma (;), harridura-ikurra (!) eta galdera-ikurra (?) puntuazio-ikur moduan hartuko dira.

(22) Orduan,/basajaun guztiak Martintxoren atzetik korrika abiatu dira.//

(23) Elurra egingo zuela esan zuten. // Orduan / gizonak / egurrak bildu, / etxean sartu / eta suak piztu, / egin zezala elurra!!! /

(22) adibidean, puntuazio ikurrak zehatz-mehatz jarraitzen dira, hau da, koma eta gero eten laburra egiten da eta puntu ostean, eten luzea. (23) adibidean, berriz, kontaktetan puntuazio ikurrek markaturiko etenak baino pausa gehiago egiten da entzulearengan efektu bat lortzeko. Kasu honetan, kontaktari erritmo zehatz bat emateko.

### 2.3.1.2. Abiada

Eizagirrek (2006) kontakizunaren abiada neurtzeko silaba kopurua denbora unitate bakoitzeko egiten dela dioen arren, lan honen abiada orokorraren azterketa egiteko, hurrengo formula matematikoa jarraituko da:

$$x = \frac{\text{hitz kopurua}}{\text{segundoak}}$$

Ipuinaren iraupena segundoetara pasatuko da abiada zein den jakiteko eta hitzak zati iraupena egingo da. Emaitza laugarren hamartarrean borobilduko da. Adibidez, ipuinak 4 minutu irauten baditu eta 386 hitz baditu, hurrengo kalkulua egingo da.

$$x = \frac{386}{4 \times 60} = 1,6083 \text{ hitz/seg}$$

Ipuinen abiada neurtzeko, lehenik eta behin, ipuinetan erabilitako abiadaren batez bestekoa kalkulatu da. Ondoren, kontakizun bakoitzeko ohiko abiadarekin desberdintasunak antzematen diren bi zati aukeratu eta aztertuko dira. Zati hauen batz bestekoa kalkulatzeko formula matematiko berdina erabiliko da. Amaitzeko, abiada normalaren, astiroaren eta azkarraren alderaketa egingo da, eta baita ere, batetik bestera igarotzeko dagoen ipuinen batz besteko abiadura kalkulatu da. Beraz, hiru abiada mota aztertuko dira:

- a) Orokorra.
- b) Astiro edo geldoa.
- c) Arina edo azkarra.

### 2.3.1.3. Bolumena

Atal honetan, ipuinen zati desberdinak hautatuko dira eta teoria eta ipuin kontalariak erabiltzen duen bolumena alderatuko da kontrakotasunak (baldin eta badaude) antzemateko, bolumenaren teoria eta Koldo Amestoyk bere kontaktetan erabiltzen

duen bolumenaren balio pragmatikoaren arteko alderaketa eginez. Modu honetan, teoriari jarraituz bolumenak gora eta behera non egingo duen auresango da. Koldo Amestoyk bolumenaren bariazioak non egiten dituen analizatzeko audioak arretaz entzunez egingo dira. Bolumenaren azterketa egiteko hurrengo ikurrak erabiliko dira:  $\Uparrow$  (bolumenak behera egiten duenean) eta  $\perp$  (bolumenak gora egiten duenean).

(24) Zer  $\perp$  ote zen  $\Uparrow$  apustu egile hau?  $\perp$

(24) adibidean, *zer* eta *hau* hitzetan bolumenak gora egiten du eta *zen* hitzean, berriz, bolumenak behera egiten du, zertarako harridura nabarmentzeko (balio pragmatikoa).

### 2.3.1.4. Intonazioa

Intonazioaren azterketa egiteko ipuinen zati desberdinak hautatuko dira eta teoria eta ipuin kontalariak erabiltzen duen intonazio alderatuko da kontrakotasunak (baldin eta badaude) analizatzeko. Horretarako, lehenik eta behin, teoria jarraituz intonazioaren aldaketa non emango den auresango da, eta ondoren, Koldo Amestoyk erabiltzen duen intonazioa praktikoki analizatzeko audioak arretaz entzungo dira. Intonazioak gora egiten duenean  $\uparrow$  ikurra erabiliko da, behera egiten duenean, aldiz,  $\downarrow$  ikurra.

(25) Haran horretako  $\uparrow$  herri horretan,  $\uparrow$  ogirik  $\uparrow$  ez daukate,  $\downarrow$  garirik  $\uparrow$  ez daukate.  $\downarrow$

(25) adibidean, intonazioak *daukate* perpausaren azken hitzetan beheranzko intonazioa dauka, beste hitzetan, berriz, esaldiak goranzko intonazioa dauka.

Ipuinaren analisisian Taula 3ko marka hauek erabiliko dira:

	<b>Etenak</b>	<b>Abiada</b>
Luzea	//	$x = \frac{\text{hitz kopurua}}{\text{segundoak}}$
Laburra	/	
	<b>Bolumena</b>	<b>Intonazioa</b>
Gora	$\perp$	$\uparrow$
Behera	$\Uparrow$	$\downarrow$

Taula 3. Ipuinen analisisian erabiliko diren markak

### 3. Lanaren garapena: ipuinen analisisia

Nire ustez, Koldo Amestoyren ipuin kontaketen teknikak (balio pragmatikoa) entzuleak kontakizunean murgilduz emozionatzea helburua dute. Gauzak horrela, narratzailearen eta pertsonaien ahotsak ezberdindu, geldialdi dramatikoak eta gertaera desberdinetara

egokitutako erritmoa ezartzen ditu. Aurrerago Koldo Amestoyren hiru ipuin grabatuen bolumena, intonazioa, puntuazio etenak eta abiadura aztertuko dira bere kontaktaren zenbait ezaugarri identifikatzeko. Horretarako, lan honen mugak direla eta ipuinen zati adierazgarriak soilik hautatu dira.

### 3.1. Puntuazioa eta etenak

Taula 4an eta Taula 5ean "Azeria eta putrea", "Harri-egilea" eta "Martintxo eta basajaunak" ipuinen puntuazio ikurren eta etenen azterketa egin da.

	Puntuazio ikurrak		Etenak	
	Laburrak	Luzeak	Laburrak	Luzeak
<b>Azeria eta putrea</b>	29	67	60	62
<b>Harri-egilea</b>	55	38	81	41
<b>Martintxo eta basajaunak</b>	83	73	124	76

Taula 4. Puntuazio ikurrak eta etenak ipuin bakoitzean.

	Ezaugarriak	
	Eten Laburra	Eten Luzea
<b>Puntuazio Laburra</b>	147	15
<b>Puntuazio Luzea</b>	137	46
<b>Puntuaziorik gabe</b>	112	5

Taula 5. Puntuazio ikurrak eta etenak.

Emaitzak erakusten dutenez, hiru ipuinetan adierazten diren puntuazio ikurrak baino eten gehiago egiten dira (ikus Taula 4). Taula 5ean Koldo Amestoyk egindako eten kopurua ez ezik, eten horien iraupena (laburra edo luzea) azter daiteke. Izan ere, puntuazio ikur laburretan eten laburrak egin beharko lirateke, eta puntuazio ikur luzeetan eten luzeak (taulan belztuta daudenen kasuan bezala). Hala ere, kontalariak kasu batzuetan puntuazio ikurren araua bortxatzen du puntuazio laburren kasuan eten luzeak eginez, puntuazio luzeetan eten laburrak eginez eta puntuazio ikurrik ez dagoenean ere, eten laburrak eta luzeak eginez.

Hona hemen puntuazio desberdinen arauari ez dagokien eten desberdinak (balio pragmatikoa):

Puntuazio laburra eta eten luzea (ikus Taula 4ko lehenengo lerroa eta bigarren zutabea): kasu honetan, puntuazio laburra dagoen lekuan, adibidean, koma bat, eten luzea egitea da.

(26) Eta igo da zeruan, // gero eta gorago, // gero eta gorago. //

(26) adibidean, kontalariak bi komen ostean, eten luzea egiten du. Horrela, kontaktzen dagoenaren intriga eta era berean, lurraren eta zeruaren arteko distantzia markatzeko erabiltzen du, hau da, soinua ingurune fisikoan kokatzen du.

Puntuazio luzea eta eten laburra (ikus Taula 4ko bigarren lerroa eta lehenengo zutabea): puntuazio luzea dagoen tokian, eten laburra egiten denean ematen da.

(27) Ikusi du ere gauza bat bere ondotik pasatzen. / Aizkora bat zen, / Basajaun batek bota ziona. / Eta korrika segitu / Martintxok. /

(27) adibidean, kontalariak puntua dagoen lekuetan eten luzea egin beharrean, eten laburra egiten du. Modu honetan, kontaktzen dagoen gertaerari azkartasuna ematen dio.

Puntuaziorik gabe eta eten laburra (ikus Taula 4ko hirugarren lerroa eta lehenengo zutabea): kasu honetan, puntuazio ikurrik ez dagoen lekuetan eten laburra egitean datza.

(28) Orduan, / **Martintxo** / bere etxean sartu da, eta laster **atera** / bota handi batzuk soinean. /

(28) adibidean, kontalariak puntuazioarekin adierazita ez dauden eten laburrak egiten ditu (*Martintxo* eta *atera* hitzen ostean), ahoskatutako azkenengo hitza markatzeko eta aldi berean kontaktetari erritmo bizia emanez.

Puntuaziorik gabe eta eten luzea (ikus Taula 4ko hirugarren lerroa eta bigarren zutabea): puntuazio ikurrik ez dagoenean eten luzea egiten den gertatzen da.

(29) Eta gau horretan, / lamiak // hodei zuria // mendi beltz // bihurtu zuen. //

(29) adibidean, Koldo Amestoyk puntuazioarekin adierazita ez dauden eten luzeak egiten ditu (*lamiak*, *zuria* eta *beltz* hitzen ostean). Modu honetan, eten luzeak eginez, entzulearen arreta deitzen du eta garrantzia ematen dio esaldiko gertaerari, balio pragmatikoa erabiliz beste esaldiak baino gehiago markatzen duelako.

Kontalariak eten desberdinen erabileraren bidez, entzuleengan emozioak sorrarazten ditu. Orokorrean, eten luzeak egiten dituenean, gertakaria misteriotsua izatea edo entzuleen interesa handitzea eragiten du. Etenaldiak, laburrak direnean, berriz, urduritasun, larritasun edo azkartasuna.

### 3.2. Abiada

Atal honetan, Koldo Amestoyk bere kontakizunetan erabiltzen dituen abiada desberdinak ikertu dira. Aztertutako ipuinetan zehar hiru abiada nagusi bereizten dira: astiro edo geldoa, abiada normala eta arina (ikus Taula 6).

	<b>Astiro</b>	<b>Normal</b>	<b>Arin</b>
<b>Azeria eta putrea</b>	1,2380	1,6083	2,4
<b>Harri-egilea</b>	1,18	1,3992	2,1667
<b>Martintxo eta basajaunak</b>	1,218	1,458	2,2258

Taula 6. Ipuinen abiada (hitz/seg).


Taula 6an, kontalariak hiru ipuinetan erabilitako abiaduren bataz bestekoa eta abiada frekuentzia desberdinetan dagoen tarte hitz/segundutan ikus daitezke. Aztertutako ipuinen bataz besteko abiadura, 1,4885 hitz/segundukoa bada eta zenbaki hori oinarritzko edo balio normaltzat hartzen bada, ipuinen bataz besteko abiadatik abiada arinera igarotzeko 0,7757 hitz/segunduko handitzen du. Abiada astiro edo geldoaren kasuan, berriz, 0,2698 hitz/segunduko murrizten du Taula 7aren arabera. Gauzak horrela, abiada arrunta, abiada arina eta geldoaren arteko abiadatzat hartzen da, eta, beraz, neutrotzat hartzen den abiada.

	<b>Astiro</b>	<b>Normal</b>	<b>Arin</b>
<b>Bbt</b>	1,2187	1,4885	2,2642
<b>Diferentzia</b>	-0,2698		+0,7757

Taula 7. Ipuinen abiadaren bataz bestekoa eta diferentzia.

Hurrengo grafikoan (ikus Grafikoa 1), ipuinen bataz besteko abiadaz gain, "Azeria eta putrea", "Harri-egilea" eta "Martintxo eta basajaunak" ipuinetan hautatutako zati desberdinen bataz besteko abiadak kalkulatu dira. Datu hauetan, ipuin bakoitzean, (ipuinaren zeinahi dela bere abiada normala, geldoagoa edo arinagoa) kontalaria patxadaz berba egiten dagoenean (abiada geldoa) 1,2 hitz/segundu inguru esaten ditu. Aldiz, arrapaladan edo azkar kontatzen dagoenean, 2,2 hitz/segundu inguru ahoskatzen ditu.

### Abiadura ezberdinak kontakizunean



Grafikoa 1. Abiadura ezberdinak kontakizunean.

Hurrengo taulan (ikus Taula 7), ipuin bakoitzaren abiadaren azterketa zehatzagoa egiten da, batz besteko abiada edo abiada normala eta abiadarekin zerikusia duten faktoreak (denbora eta hitzak) ere ikus daitezke.

	Denbora (seg)	Hitzak	Bbt. Abiada
<b>Azeria eta putrea</b>	<b>240</b>	<b>386</b>	<b>1,6083</b>
A zatia (55-60 lerroak)	21	26	1,2380
B zatia (70-79 lerroak)	20	20	2,4
<b>Harri-egilea</b>	<b>243</b>	<b>340</b>	<b>1,3992</b>
A zatia (14-19 lerroak)	12	26	2,1667
B zatia (34-42 lerroak)	37	44	1,18
<b>Martintxo eta basajaunak</b>	<b>363</b>	<b>538</b>	<b>1,4580</b>
A zatia (1-10 lerroak)	21	26	1,2380
B zatia (55-69 lerroak)	31	69	2,2258

Taula 8. Kontaketa abiada (hitz/seg) ipuin bakoitzean eta zati desberdinetan.

"**Azeria eta putrea**" ipuinak<sup>8</sup> 4 minutu irauten du eta 386 hitz dauzka. Beraz, kontalariak erabiltzen duen batez besteko abiada 1,6083 hitz/seg dira. A zatiak (ipuinaren 55-60 lerroak) 21 segundo irauten du (2:48-3:09) eta 26 hitz dauzka. Beraz, kontalariak zati honetan erabiltzen duen batez besteko abiada 1,2380 hitz/seg dira, ipuinaren batez besteko abiadura baino astiroagoa. B zatiak (ipuinaren 70-79 lerroak), berriz, 20 segundo irauten du (3:48-4:00) eta 20 hitz dauzka. Kontalariak zati honetan

<sup>8</sup> Oharra: testua ikus 41. orrialdean.

erabiltzen duen abiada 2,4 hitz/seg dira, ipuinaren batez besteko abiadura baino arinagoa.

**"Harri-egilea" ipuinak<sup>9</sup>** 4 minutu eta 3 segundo irauten du eta 340 hitz dauzka, ipuin honen abiada arrunta 1,3992 hitz/seg dira. A zatiak (ipuinaren 14-19 lerroak) 12 segundo irauten du (1:09-1:21) eta 26 hitz dauzka. Beraz, kontalariak zati honetan erabiltzen duen abiada 2,1667 hitz/seg dira eta, beraz, ipuinaren batez besteko abiadura baino arinagoa da. Aldiz, B zatiak (ipuinaren 34-42 lerroak) 37 segundo irauten du (2:11-2:48) eta 44 hitz dauzka. Kontalariak zati honetan erabiltzen duen batez besteko abiada 1,18 hitz/seg dira, kontaketa batez besteko abiadura baino astiroagoa eginez.

**"Martintxo eta basajaunak" ipuinak<sup>10</sup>** 6 eta 3 segundo irauten du eta 538 hitz dauzka. Ipuin honetan, kontalariak erabiltzen duen batez besteko abiada 1,4580 hitz/seg dira. A zatiak (ipuinaren 1-10 lerroak) 21 segundo irauten du (2:48-3:09) eta 26 hitz dauzka. Beraz, haren batez besteko abiada 1,2380 hitz/seg dira, ipuinaren batez besteko abiadura baino astiroagoa. B zatiak (ipuinaren 55-69 lerroak), berriz, 31 segundo irauten du (2:59-3:30) eta 69 hitz dauzka, bataz besteko abiada 2,2258 hitz/seg izanez, ipuinaren batez besteko abiadura baino arinagoa.

Hiru ipuinetan kontalariak balio pragmatikoa erabiliz inguruan sorrarazi nahi duen giroaren arabera abiada desberdinak erabiltzen ditu: arrunta edo neutroa, arina eta geldoa. Kontalariak ipuinaren abiada murrizten duenean, gertaerak geldoagoak bilakatzea edo misterioitsuak izateko asmoarekin egiten du. Abiada azkartzen duenean, berriz, ipuinaren pasarteari bizitasuna eta intentsitatea areagotzea bilatzen du. Hauen adibideak dira, Azeria eta Putrea ipuinean jarraian ematen diren bi gertaera. Putreak zerura hegan egiten azeria igotzen duenean, kontaketa abiada moteldu egiten da lurraren eta zeruaren arteko distantzia eta putrearen ahalegina ere nabarmenduz. Aitzitik, azeriak putrea askatzen duenean, eta gainbehera bizian erortzen denean, kontaketa abiada azkartu egiten da gertaera dramatizatuz.

### 3.3. Bolumena

Atal honetan, hurrengo adibidean ikus daitekeen moduan bolumenaren analisisa egin da.


(30) Haran horretako herri horretan, ogirik⊥ ez daukate, garirik⊥ ez daukate.

<sup>9</sup> Oharra: testua ikus 41. orrialdean.

<sup>10</sup> Oharra: testua ikus 42. orrialdean.



Hurrengo ipuin zatia "Martintxo eta basajaunak" ipuinetik aterata dago, konkretuki 1-2 lerroak. Hurrengo grafikoaren (ikus Grafikoa 2)<sup>11</sup> lehenengo lerroan, kontalariaren ahotsaren frekuentzia ikus daiteke, eta bigarreanean dauden marra berdeek kontalariak erabiltzen duen bolumenaren frekuentzia adierazten dute. Hauek kontalariak erabiltzen duen bolumen frekuentzia antzekoetan mugitzen dela ikus daiteke.



Grafikoa 2. Bolumenaren analisisia

Eranskinetan (ikus 4. ERANSKINA: BOLUMENAREN ANALISIA) corpuseko ipuinetatik hautatutako ipuin zatien bolumenaren analisisa dago. Hauen entzunez egindako analisisien bidez, kontalariak erabiltzen duen bolumenaren frekuentzia oso aldakorra ez dela aztertu da esaldian, hitzei dagokionez. Izan ere, orokorrean, bolumenaren aldaketa, batez ere, ipuinean parte hartzen duten pertsonaien ahotsen desberdintasuna egiteko erabiltzen du eta narratzaile moduan jarduten denean. Bariazio hauek teoriarekin beti bat ez datozen arren, bolumen igoera eta jaitsiera ez da beti aurrean den moduan eman.

### 3.4. Intonazioa

Atal honetan, hurrengo adibidean ikus daitekeen moduan intonazioaren analisisa egin da.


(31) Haran horretako↑ herri horretan,↑ ogirik↑ ez daukate,↓ garirik↑ ez daukate.↓

Hurrengo ipuin zatia "Martintxo eta basajaunak" ipuinetik aterata dago, konkretuki 1-2 lerroak. Hurrengo grafikoaren (ikus Grafikoa 3)<sup>12</sup> lehenengo lerroan, kontalariaren ahotsaren frekuentzia ikus daiteke, eta bigarreanean dauden marra urdinek kontalariak erabiltzen duen intonazioa adierazten dute. Hauek kontalariak erabiltzen duen intonazioa esaldian zehar gora eta behera egiten duela ikus daiteke. *Garirik* hitzean

<sup>11</sup> Oharra: audioaren bolumenaren grafiko hau egiteko PRAAT programa erabili da.

<sup>12</sup> Oharra: audioaren intonazioaren grafiko hau egiteko PRAAT programa erabili da.

intonazioaren gailurra ematen da, garia baita Martintxoren helburua eta ipuinaren motibazio nagusia.



Grafikoa 3. Intonazioaren analisisia

Eranskinetan (ikus 5. ERANSKINA: INTONAZIOAREN ANALISIA) corpuseko ipuinetatik hautatutako ipuin zatien intonazioaren analisisia dago. Hauen entzunez egindako analisisien bidez, kontalariak erabiltzen duen intonazioan frekuentzia desberdinak erabiltzeaz gain, intonazioaren teorian oinarrituz, intonazioaren igoera eta jaitsiera ez da beti aurrean den moduan eman.

Kontalariak esaldien ohiko intonazioari doinua aldatuz, kontalariak gertaeraren edo osagaiaren azpimarraketa egiten du oharkabean gelditu ez dadin. Gauzak horrela, kontalariak intonazioaren araua bortxatzen du, balio pragmatikoaz baliatuz, entzuleengan efektu bat lortzeko eta haien arreta bereganatzeko.

#### 4. Ondorioak eta etorkizuneko lana

Atal honetan, Bazen Behin bilduman aztertutako Koldo Amestoy ipuinen ahozko kontaketa erabilitako ezaugarrien (etenak, abiada, bolumena eta intonazioa) azterketan jasotako emaitzak eta ondorioak bilduko dira. Hala ere, lan hau 2013/2014 ikasturtean egindako Gradu Amaierako Lanaren (García Arriola, 2014) ipuinaren sorkuntzaz haratago doan arren, igorleak hartzaileari mezua helarazteko erabiltzen dituen estrategiak ikertzen direlako, hemen adierazten diren ondorioak beste ipuin kontalarietara hedatzeko, ipuin kontalarien lagina handitu eta ipuin mota desberdinak ere aztertu beharko lirateke.

Ipuin kontaketa zehar egiten diren etenaldiei dagokienez, ipuinaren testuaren puntuazio-ikurren bidez ipuinaren kontaketa (bai irakurritz gero, bai ahozko kontaketa

eginez gero) egin behar diren etenak adierazten dira. Komaren kasuan, eten laburrak eta puntuen kasuan eten luzeagoak. Hala ere, kontuan hartu behar da ipuin baten irakurketa laua eta kontaketa egitea ez direla jarduera bera. Izan ere, kontaketa ipuinaren testuan markatuta dauden eten gehiago egiten dira. Ahozko kontaketa egiten diren eten kopurua ipuinen testuetan ezarrita dauden etenak baino altuagoa da. Beraz, ipuin testuetan etenak egiteko puntuazio-ikurrak adierazten ez diren arren, etenak egiten dira, izan ere, irakurketa adierazgarrian kontaketa bezala aritzea da egokiena gure ustez.

Hala ere, Koldo Amestoyk ipuin testuetan dauden puntuazio-ikurrek markatzen dituzten etenak baino gehiago egiteaz gain, egiten dituen eten horien denbora tartea ere aztertu beharra dago. Izan ere, koma dagoen lekuetan eten luzeak eta puntua dagoen lekuetan eten laburrak ere egiten dituen kasuak topa daitezke.

Eten desberdinen bidez, kontalariak gertakari desberdinak entzuleei helarazteko kontaketa abiada desberdinak erabiltzen ditu, besteak beste mantsoan, arrapaladan, zorrotz, leun hitz egitea. Honen bitartez, kontatzen dagoen gertakariaren erritmoa eta denborak entzuleei transmititzen die eta Eizagirrek (2006) dioena betetzen da ipuinetan.

Etenaldi luzeek kontatzen denaren misterioa eta interesa handitzea eragiten dute, esate baterako, Azeria eta Putrea ipuinean, putreak azeria zerura igotzen duenean, eten luze-luzeak egiten ditu hegaldiaren igoera eta hegan egitearen jarduera geldoa eta adierazteko. Aitzitik, etenaldi laburrak egiten direnean, urduritasun, larritasun edo azkartasunaren interpretazioa izan daitezke, Martintxo eta Basajaunak ipuinean basajaunak gaztetxoaren atzetik korrika eta harrapatu nahian doazenean eten laburrak eta ebakiak egiten dira egoerari azkartasuna gehitzeko. Aitzitik, Azeria eta Putrea ipuinean, putreak azeria zerura igotzen duenean, eten luze-luzeak egiten ditu hegaldiaren igoera eta hegan egitearen jarduera geldoa eta adierazteko.

Abiadari dagokionez, Koldo Amestoyk kontaturiko ipuinen ahozko kontaketa hiru abiada bereizi daitezke: kontalariak kontaketa zehar erabiltzen duen batez besteko abiada edo abiada arrunta, abiada geldoa/astiro eta arina. Kontalariak ipuinean sortu nahi duen giroaren arabera, abiada arrunta, geldoa edo arina erabiltzen ditu. Aztertutako ahozko ipuinen kontaketa abiada arruntean kontalariak segundo batean 1,5 hitz inguru esaten ditu. Haatik, abiada motelagoa erabiltzen duenean, hitz kopurua gutxitu egiten da (bataz beste 1,21 hitz/seg). Abiada azkarra denean, kontalariak segundo

bakoitzeko esaten dituen hitzak 2,26 dira, abiada geldoa erabiltzen denean baino hitz bat gehiago.

Kontalariak inguruan sorrarazi nahi duen giroaren arabera abiada desberdinen erabilera egiten du. Abiada arrunta, abiada arina eta geldoaren arteko abiadatzat hartzen da, eta beraz, neutrotzat hartzen den abiada. Abiada murrizten denean, gertaerak geldoagoak bilakatzea edo misteriotsuak izateko asmoarekin egiten dira. Adibidez, harri-egilea ipuinean, lamiak harri-egilea hodei bihurtzen duenean eta harri-egilea zerua hodeien antzera zerua zeharkatzen duenean, abiada motelagoa da. Abiada azkartzen denean, berriz, ipuinaren pasarteari bizitasuna eta intentsitatea areagotzea bilatzen da. Honen adibidea Azeria eta Putrea ipuinean, azeriak putrearen galdera erantzuten duenean eta zerutik erortzen denean kontaketa abiadura handitzen da azeriaren larritasuna adierazteko.

Bolumenaren aldaketa, batez ere, ipuinean parte hartzen duten pertsonaien ahotsen desberdintasuna egiteko erabiltzen du. Hala ere, narratzaile moduan jarduten denean, ere bolumen bariazio batzuk ere nabarmendu daitezke. Bariazio hauek ez datoz beti bat auresandako arauarekin, entzulearen arreta deitzeko estrategia moduan erabiltzen dituelako. Esate baterako, kontaktzen dagoenaren elementu bat nabarmendu nahi duenean, bolumena igo egiten du edo inork entzun behar ez duen zerbait esaten duenean, bolumena jaitsi egiten du narratzaile eta entzuleen arteko sekretu gisa.

Intonazioaren kasuan ere, Koldo Amestoyk ipuinen ahozko kontaketa praktikara eramaten duenean, ez da auresandako araua betetzen. Izan ere, kontalariak bere ahotsaren intentsitateaz baliaituz eta esaldien ohiko intonazioari doinua aldatuz, kontalariak gertaera edo osagaia nabarmentzen du, oharkabean gelditu ez dadin.

Ikus daitekeenez, kontalariak ipuin kontaketa etenen, abiadaren, bolumenaren eta intonazioaren araua ez betetzea edo araua bortxatzea, entzuleengan efektua sortu nahi duelako da. Modu honetan, kontalariak balio pragmatikoa baliatzen du, komunikazioaren ekoizpenean eta interpretazioan parte hartzen duten elementuen eta hizkuntzaren erabilera desberdina egiten duelako (Herrero, 2006:25). Gauzak horrela, ipuin kontaketa eten, abiada, bolumen eta intonazio aldaketen konbinazioekin ipuinaren kontaketa umeen arreta momentu zehatzetan berenganatzea eta entzuleen interesa eta jakin-mina pizten du.

Hala ere, lan honetan ipuin kontalari bakarra (Koldo Amestoy) aztertu da, beraz, atal honetan bere estiloaren deskribapenaren ondorioak egin dira. Hori dela eta, lan honetan ahozko ipuin kontaketa bolumen, intonazio, eten eta abiadaren inguruan adierazten diren ideiak egiaztatzeko ipuin kontalari gehiago aztertu beharko lirateke, ezin baitira beste ipuin kontalariak dituzten estrategia eta teknikek orokortu.

Etorkizuneko lan bezala, eta behin kontalariak ipuinen kontaketa erabiltzen dituzten strategiak aztertuta, hezkuntza esparruan, irakasleek kontalarien strategiak autonomoki erabiltzen ikasteko gida edo teknika liburua sortzea oso aberasgarria izango litzateke.

**Erreferentzia Bibliografikoak**

- Amestoy, K. eta Martinez, B. (1992).** Bazen behin bilduma. Elkar.
- Añorga, P. (2012).** Kontalariaren jarrera eta hizkuntz egokitzapena hurrei kontatzerakoan. *Mintzola Ahozko Lantegia*, X. alea, 43-57.
- Aurrekoetxea, G. (1997).** Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak. *Uztaro*, 87, 94.
- Bryant, S. C. (1984).** *El arte de contar cuentos*. Bartzelona: Hogar del Libro.
- Colomer, T. (2011).** La enseñanza de la literatura como construcción del sentido. *Lectura y vida: Revista latinoamericana de la lectura*. 22. alea, 1-19.
- De Sousa Silva, S. S. (2012).** *Los valores en narraciones infantiles y juveniles escritas en castellano y publicadas entre los años 2000-2007*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia. Tesi argitaragabea.
- Díaz de Gereñu Lasaga, L. (2005).** Ahozko kontaketa eta eskola jarduera. *Ikasteria: cuadernos de educación*, 14. alea, 31-42.
- Eizagirre, P. (2011).** Jendaurreko irakurketa: ahoskera, azentua eta intonazioa.
- Elorza, X. (koor) (2009a).** Solasean eta Jolasean: Ipuinen kontaketa Irakaslearen Liburuska. Habe-Eusko Jaurlaritza.
- Elorza, X. (koor) (2009b).** Solasean eta Jolasean: Eranskinak. Habe-Eusko Jaurlaritza.
- Escandell Vidal, M. V. (1996).** *Introducción a la pragmática*. Bartzelona: Editorial Ariel.
- Gaminde, I. (2004).** *Irakurketa ozenaren ezaugarriez*. Euskalingua, 5. alea, 26-32 orrialdeak.
- Gaminde, I., Aurrekoetxea, G., Etxebarria, A., Garay, U. eta Romero, A. (2014).** *Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak. Laguntzarako materiala: teoria eta praktika*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Gaminde, I., Goikoetxea, U., Bilbao, B., Pérez, K., Goikoetxea, J. L., Barrutia, E., Izagirre, E. eta Unamuno, M. (2005b).** *Irakurketa ozena Bizkaian lantzeko materialak*. Mendebalde Kultura Alkartea Izaro bilduma III.
- Gaminde, I., Goikoetxea, U., Pérez, K., Goikoetxea, J. L., Barrutia, E., Izagirre, E. eta Unamuno, M. (2005a).** *Irakurketa ozena ebaluatzen irizpideak Bizkaian*. Mendebalde Kultura Alkartea Izaro bilduma I.
- García Arriola, E. A. (2014).** *Ipuin literarioa heriotza lantzeko baliabide gisa*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

**Herrero Cecilia, J. (2006).** *Teorías de pragmática, de lingüística textual y de análisis del discurso.* Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.

**Jiménez Frías, R., Gómez Rodríguez de Castro, F., Aguado Odina, T. eta Ballesteros Velázquez, B. (2001).** *Cuéntame: el cuento y la narración en educación infantil y primaria.* Madril: Universidad Nacional de Educación a Distancia.

**Larrinagan, L. M. (1992).** Ipuingintza: Komunikazioa eta praktika linguistikoa. *Euskera*, XXXVII (2. aldia) 497-505.

**Padovani, A. (1999).** *Contar cuentos: Desde la práctica hacia la teoría,* Argentina: Editorial Paidós.

**Raines, S. C. eta Isbell, R. (2000).** *Cómo contar cuentos a los niños: Relatos y actividades para estilar la creatividad e inculcar valores éticos.* Bartzelona: Ediciones Oniro.

## ERANSKINAK

### 1. ERANSKINA: IPUINAK

#### "Azeria eta putrea" ipuina

Elurra egingo zuela esan zuten. Orduan gizonek egurrak bildu, etxean sartu eta suak piztu, egin zezala elurra!!! Abereek aspalditik 5 bazekiten elurra egingo zuela. Orduan bakoitza sartu bere zuloan, bere txokoan, bere ohandze bero eta goxoan, egin zezala elurra!!!

Azeri zahar hau ezik! Honek, 10 gorputza zuloan eta burua kanpoan zuen eta hortxe zegoen lasai-lasai gaua bukatzen bezala erdi ametsetan goiz hontan. Momentu batez bere sudur gainean holako gauza hotz bat 15 sentitzen du. Begiak ireki eta ikusi zerutik eroaten gauza zuri batzuk.

- Zer ote da hau? Baina zer ote da?

Azeri honek ez du behin ere holakorik ikusi!!! Eta ingurua, zuri eta 20 gero eta zuriago bilakatzen da. Orduan, azeria zulotik atera eta bueltaka eta biraka, oihuka eta garrasika entzuten da; gelditzeko gauza!

25 Orduan agertzen zaio saia bat! Putre zahar bat!

- Zer gertatzen da azeritxo?

- Gertatzen da nik ez dakidala zer diren zerutik erortzen diren gauza 30 horiek!

- Zuk ez dakizu zer diren horiek? A! Azeri! Zerutik erortzen zaizkigun gauza horiek, lumak dira. Lumak!

- Lumak? Lumak?

35 - Bai lumak! Zeruan festa handi baten prestatzen ari dira eta oiloak, oilaskoak, ahateak eta antzarak lumatzen dituzte eta horiek botatzen dizkigute. Lumak!!

40 - Aa!!! Lumak!!

Hemendik ikusten duzu azeriaren gogoan pasatzen diren irudiak eta azeri honek zerua begiratzen, ea hodeien artetik zerbait 45 ikusiko ote duen oilasko bat, ahate bat, edo.... Putrea konturatu da gauza honetaz eta esan dio:

- Begira, badakit igo nahi duzula. Begira ene nire buztana eta hartu 50 ezazu zure hortzekin nire buztana eta eramango zaitut gain hartara!

Laster egin du azeri honek aukera! Ahoa ireki eta hartu putrearen buztana! Eta honek poliki-poliki 55 abiada hartu du. Eta igo da zeruan,



gero eta gorago, gero eta gorago.  
Buelbaka, biraka, goiti, goiti, igan, igo,  
eta gairandian hantxe zeruko  
isiltasunean entzuten da putreak  
60 azeriari galdegiten:  
- E!! Azeri!!! Zer moduz? Nola  
zaude? Erantzunik ez! E! Nik galdera  
bat egin dizut eta erantzun zerbait  
nahi nuke! Zer moduz azeria?  
65 Isiltasunak erantzun dio.  
- Bueno, erantzunik ez baldin bada,  
berriz jautsiko gara. Hori nahi duzu?  
Jaustea! E? Hori nahi duzu?

- EZ!!!!  
70 Putrearen buztana utzita,  
azeria lau hankak zabal-zabal erortzen  
da eta beherean ikusten ditu harriak  
tente zeruari begira. Orduan azeria  
honek, oihuka, garrasika, esaten die:  
75 - Begira!! Alde egin alde egin hortik  
erortzen bainaiz!  
Baina harriak ez dira mugitu  
eta azeria azeria harrien artean erori  
da ezkraxatu eta bertan hil da!!!!

### "Harri-egilea" ipuina

Behin bazen harri-egile bat,  
 harri egiten, harri pikatzen kiski eta  
 kaska, bere mendi aldean ari zena.  
 Herriko jendeentzat etxeak eginik,  
 5 jaun handientzat palazioak eraikirik,  
 lan asko egin zuen, eta diru guti  
 irabazi. Holako batez etxean zegoela,  
 aberats izatea gogoratu zitzaion.

Gau horretan, bere mendiko  
 10 lagunak, lamiak, aberats bihurtu zuen.

Biharamunean bere burua  
 aberats aurkitu zuen, lorategian,  
 hortxe, deus egin gabe, egun osoan,  
 eguzki azpian lasai-lasai!!! Baina  
 15 eguzkiak berotzen zuen, erretzen  
 zuen, burua kixkailtzen zion.

- «Zer da hau, eguzkia ni baino  
 indartsuago ala? Eguzki izan behar  
 nuke!!! Eguzki izan behar dut!!!»

20 Eta gau horretan, lamia  
 adiskideak, aberatsa Eguzki eder  
 bihurtu zuen.

Goiz horretan eguzkia altxa  
 zen zeruan, eder, errege baten  
 25 idurikoa, enperadore bat bezala gain  
 horretarik hasi zen inguru guzia  
 argitzen, berotzen, erretzen, nahi  
 zuena egiten. Eta holako batez,  
 hurbildu zitzaion hodei zuri bat. Bere  
 30 izpien aurrean eman zen, guzia  
 tratatzen.

- «Hau zer da? Ni baino indartsuago  
 odei hori? A! Hodei izan behar nuke.»

Eta gau horretan, lamia  
 35 adiskideak, eguzki eder-ederra hodei  
 bihurtu zuen. Hodeia, zeruan gaindi,  
 zerua zeharkatzen ibili zen egun  
 osoan. Eta gero mendi alde horretara  
 hurbildu, mendi ilun horren inguruan  
 40 ibili, lainoak egiten, euria, elurra,  
 txingorra, kazkabarra, harria eta  
 guziak eta mendia ez zen mugitzen!

- «Hau zer da? Mendi beltz hau ni  
 baino indartsuago ala? Mendi izan  
 45 behar dut! Mendi izan behar dut nik!»

Eta gau horretan, lamiak hodei  
 zuria mendi beltz bihurtu zuen.

Mendi, eder, burua zeruan  
 hodeien artean, eta oinak lurrean ongi  
 50 finkatuak! Mendi indartsua. Orduan  
 sentitu zuen bere oinetan behean  
 holako txik-txik-txik zerbait.

- «Hau zer da?»

Beherera behatu eta ikusi,  
 55 gizon bat, mailu bat eskuan eta zizela  
 bestean, tin-tin-tin-tin-tin jotzen.  
 Harri-egile bat!

- «Ou! Ou! Horrela jarraitzen badu  
 honek, puskatuko nau, lurrera botako  
 60 nau! Harri-egile izan behar dut, harri-  
 egile izan behar dut nik!!!»

Eta gau horretan, lamia  
 lagunak mendi beltza harri egile  
 bihurtu zuen.

65           Biharamunean, hortxe zegoen  
              lanean harri-egilea. Hurbildu zitzaion  
              orduak lamia adiskidea.

- «E! Bidaia ederra egin duzu!!!  
Gauza asko ikusi, ikasi, baina uste dut

70   nik, orain, hobe dugula gelditzea: zu  
          hargin eta ni lami.

**"Martintxo eta basajaunak" ipuina**

Haran horretako herri horretan,  
ogirik ez daukate, garirik ez daukate.  
Alta badakite zer den, badakite ere  
Basajaunek, mendi aldean, erabiltzen  
5 dutela. Baina, nola egin hori lortzeko,  
eskuratzeke? Ez dakite. Behin,  
elkartuak ziren herriko enparantzan  
herritar guziak eta eztabaidatzen.  
Orduan, hurbildu zitzaien herriko  
10 mutil gazte hori: Martintxo.

- Ni joango naiz. Basajaunen ikustera,  
eta hauekin dena konpontzera!  
- Zu Martintxo?  
- Bai, ni!

15 Orduan, Martintxo bere etxean  
sartu da, eta laster atera bota handi  
batzuk soinean. Enparantza zeharkatu  
eta etxeen artetik, poliki-poliki  
herritik urrundu.

20 Gain hartara heltzean,  
Martintxok, Basajaunak lanean  
aurkitu ditu, agurtu eta...

- Ni Martintxo nauzue, salto egile  
handienena. Nahi baduzue, bat egingo  
25 dugu: gari meta horren gainetik salto  
egiten dudala. Eta zuek?

- A! Guk ere bai!

Orduan, Basajaun bat abiada  
hartu eta, blop! Salto egiten ikusi da,  
30 eta haren ondotik, bigarren batek  
abiada hartu eta gari metaren gainetik  
salto egin eta horrela, poliki-poliki,  
Basajaun guziek salto egiten dute.

Martintxok bere aldian, bere  
35 bota handiekin, abiada hartu du ere  
bai, eta biup! Altxatu, eta brasta!...  
Gari metaren erdi-erdira erori da!  
Hortxe dago, kezkatua, lotsati.

- A! Ez dakit nik zer gertatu den! A!

40 Gariaren artetik jautsi da  
poliki-poliki, eta Basajaunak agurtu  
ditu eta kanpamendutik urrundu da  
Martintxo. Hortxe utzi ditu  
Basajaunak irriz eta barrezka.

45 - Zer ote zen apustu egile hau? Zer  
egin nahi zuen, hain txikia!!!!  
Aizue!!!

- E! Lagunak!!! Ikusi ote duzue zer  
egin duen honek? Ez ditu botak hustu  
50 guk egiten dugun bezala, gari metatik  
jaustean!

- Botak ez hustu? Beraz gure gari  
aleak lapurtu dizkigu!

- Garia lapurtu, guri?

55 - Bai! O! Ohointxo! Harrapatu behar  
dugu!! Harrapatu behar dugu!!

Orduan, Basajaun guziak  
Martintxoren atzetik korrika abiatu  
dira. Martintxok, hantxe urrunago,  
60 beherago, korrika segitzen du. Ahal  
duen bezala, bere bota handiak  
soinean. Badaki basora heltzean, salbu  
izango dela. Momentu batean, entzun  
ditu Basajaunak hurbiltzen! Ikusi du  
65 ere gauza bat bere ondotik pasatzen.  
Aizkora bat zen, Basajaun batek bota

ziona. Eta korrika segitu du  
Martintxok. Basajaunak hurbiltzen  
direla eta azkenean, brasta! Sartu da  
70 hantxe, zuhaitzen azpian, oihan  
iluneko zuhaitzen azpian, salbu da!

Basajaunek hori ikustean,  
hortxe berean gelditu dira, eta haserre  
gorrian bueltatu, marmarika,  
75 murmurika, mendi aldera.

Martintxok basoa zeharkatu du  
eta herrira heltzean, enparantzan  
gelditu da. Herritarrek hurbildu  
zaizkio eta bere abentura kontatzen  
80 hasi da. Bota bat hartu gero eta hustu  
du, bigarrena ere bai enparantza  
erdira, eta herrian jendeak oihuka:

- Martintxok garia ekarri digu! Ogia,  
ogi aleak ekarri ditu!!!

85 - Festa bat egin behar da!

- Festa bat? Aizue! Zuek ba ote  
dakizue garia noiz ereiten den?

- Ez!

Herritarrek ez dakite! A!  
90 Orduan, zenbaiten denboraren buruan,  
Martintxo berriz igo da Basajaunen  
kanpamendu aldera eta entzun ditu  
hantxe esaten:

- Gizonek ez dakite noiz ereiten den

95 garia, Baina guk, badakigu!

*Baldin baleki hartuko luke,*

*Baldin baleki hartuko luke,*

*Hostoa irtetean, artoa ereiten,*

*Hostoa erortzean, garia ereiten,*

100 *Ta San Lorentzotan arbia ereiten.*

*Baldin baleki hartuko luke,*

*Baldin baleki hartuko luke,*

*Hostoa irtetean, artoa ereiten,*

*Hostoa erortzean, garia ereiten,*

105 *Ta San Lorentzotan arbia ereiten,*

*Ta San Lorentzotan arbia ereiten.*

Martintxok ekarri zuenean  
Basajaunen sekretua herrira, festa  
handi bat egin zuten, eta, gau  
horretan, Martintxo izan zen, festa  
horretako erregea.

Gaur goizean, ogi zuria jan  
baduzu, hori da Martintxok, behin,  
gari aleak, Basajaunei lapurtu  
115 zizkielako.

Eta hori hala bazan, sar dadila  
kalabazan, eta atera, zure gogoaren  
erdiko enparantzan.

120

## 2. ERANSKINA: ETENEN ANALISIA

### "Azeria eta putrea" ipuina

Elurra egingo zuela esan zuten. //  
Orduan / gizonak / egurrak bildu, /  
etxean sartu / eta suak piztu, / egin  
zezala elurra!!! / Abereek aspalditik  
bazekiten elurra egingo zuela. / Orduan /  
bakoitza / sartu bere zuloan, / bere  
txokoan, / bere ohantze bero / eta  
goxoan, / egin zezala elurra!!! /

Azeri zahar hau ezik! // Honek, /  
gorputza zuloan eta / burua kanpoan  
zuen / eta / hortxe zegoen lasai-lasai  
gaua bukatzen bezala / erdi ametsetan /  
goiz honetan. / Momentu batez / bere  
sudur gainean holako gauza hotz bat  
sentitzen du. // Begiak ireki / eta ikusi  
zerutik eroaten gauza zuri batzuk. //

- Zer ote da hau? // Baina zer ote da? /

Azeri honek ez du behin ere  
holakorik ikusi!!! / Eta ingurua, / zuri eta  
gero eta zuriago bilakatzen da. / Orduan,  
azeria zulotik atera / eta bueltaka / eta  
biraka, / oihuka eta garrasika / entzuten  
da; / gelditzeko gauza! /

Orduan agertzen zaio saia bat! /  
Putre zahar bat! /

- Zer gertatzen da azeritxo? /

- Gertatzen da nik ez dakidala zer diren  
/ zerutik erortzen diren gauza horiek! //

- Zuk ez dakizu zer diren horiek? / A! /  
Azeri! / Zerutik erortzen zaizkigun  
gauza horiek, / lumak dira. // Lumak! /

- Lumak? // Lumak? //

- Bai / lumak! / Zeruan festa handi baten  
prestatzen ari dira eta oiloak, /  
oilaskoak, / ahateak / eta antzarak  
lumutzen dituzte eta horiek botatzen  
dizkigute. / Lumak!! //

- Aa!!! Lumak!!

Hemendik ikusten duzu  
azeriaren gogoan pasatzen diren irudiak  
/ eta azeri honek zerua begiratzen, / ea  
hodeien artetik zerbait ikusiko ote duen /  
oilasko bat, / ahate bat, / edo.... // Putrea /  
konturatu da gauza honetaz eta esan dio:  
/

- Begira, / badakit igo nahi duzula. /  
Begira ene nire buztana / eta hartu ezazu  
/ zure hortzekin nire buztana eta  
eramango zaitut gain hartara! /

Laster egin du / azeri honek  
aukera! / Ahoa ireki eta hartu putrearen  
buztana! / Eta honek poliki-poliki  
abiada hartu du. // Eta igo da zeruan, //  
gero eta gorago, // gero eta gorago. //  
Buertaka, // biraka, // goiti, // goiti, // igan,  
// igo, // eta gaingian hantxe / zeruko  
isiltasunean entzuten da putreak azeriari  
galdegiten: /

- E!! // Azeri!!! // Zer moduz? // Nola  
zaude? // Erantzunik ez! // E! // Nik  
galdera bat egin dizut eta erantzun  
zerbait nahi nuke! / Zer moduz azeria? /

Isiltasunak erantzun dio./

- Bueno, / erantzunik ez baldin bada, /  
berriz jautsiko gara. / Hori nahi duzu? /  
Jaustea! / E? / Hori nahi duzu? /  
- EZ!!!! //

Putrearen buztana utzita, / azeria  
lau hankak zabal-zabal erortzen da / eta  
beherean ikusten ditu harriak tente /

zeruari begira. / Orduan azeria honek, /  
oihuka, / garrasika, / esaten die: /

- Begira!! / Alde egin / Alde egin hortik /  
erortzen bainaiz! /

Baina harriak ez dira mugitu / eta  
azeria / azeria / harrien artean erori da /  
ezkratxatu / eta bertan / hil da!!!! //

## "Harri-egilea" ipuina

Behin bazen / harri-egile bat, /  
harri egiten, / harri pikatzen / kixki eta  
kaska, / bere mendi aldean ari zena. //  
Herriko jendeentzat etxeak eginik, jaun  
handientzat palazioak eraikirik, / lan  
asko egin zuen, / eta diru guti irabazi. /  
Holako batez etxean zegoela, / aberats  
izatea gogoratu zitzaion. //

Gau horretan, / bere mendiko  
lagunak, / lamiak, / aberats bihurtu zuen.  
//

Biharamunean / bere burua /  
aberats / aurkitu zuen, / lorategian, /  
hortxe, / deus / egin gabe, / egun osoan, /  
Eguzki azpian / lasai-lasai!!! / Baina  
eguzkiak berotzen zuen, / erretzen zuen,  
/ burua kixkailtzen zion. /

- «Zer da hau, / eguzkia ni baino  
indartsuago ala? / Eguzki izan behar  
nuke!!! / Eguzki izan behar dut!!!» /

Eta gau horretan, // lamia  
adiskideak, / aberatsa Eguzki eder  
bihurtu zuen. /

Goiz horretan / eguzkia altxa zen  
zeruan, / eder, / errege baten idurikoa, /  
enperadore bat bezala / gain horretarik  
hasi zen inguru guzia argitzen, /  
berotzen, / erretzen, / nahi zuena egiten. /  
Eta holako batez, / hurbildu zitzaion /  
hodei zuri bat. / Bere izpien aurrean  
eman zen, / guzia tratatzen. /

- «Hau zer da? / Ni baino indartsuago  
odei hori? / A! / Hodei izan behar  
nuke.» /

Eta gau horretan, / lamia  
adiskideak, / Eguzki eder-ederra / hodei  
bihurtu zuen. / Hodeia, // zeruan gaindi, //  
zerua zeharkatzen ibili zen egun osoan. /  
Eta gero / mendi alde horretara hurbildu,  
/ mendi ilun horren inguruan ibili, /  
lainoak egiten, / euria, / elurra, /  
txingorra, / kazkabarra, / harria / eta  
guziak / eta mendia / ez zen mugitzen! /

- «Hau zer da? / Mendi beltz hau ni  
baino indartsuago ala? // Mendi izan  
behar dut! / Mendi izan behar dut nik!» //

Eta gau horretan, / lamiak //  
hodei zuria // mendi beltz // bihurtu zuen.  
//

Mendi, / eder, / burua zeruan /  
hodeien artean, / eta oinak lurrean / ongi  
finkatuak! / Mendi / indartsua. / Orduan /  
sentitu zuen bere oinetan behean  
holako txik-txik-txik zerbait. /

- «Hau zer da?» /

Beherera behatu / eta ikusi, /  
gizon bat, / mailu bat eskuan / eta zizela  
bestean, / tin-tin-tin-tin-tin jotzen. /  
Harri-egile bat! /

- «Ou! / Ou! / Horrela jarraitzen badu  
honek, / puskatuko nau, / lurrera botako  
nau! / Harri-egile izan behar dut, / harri-  
egile izan behar dut nik!!!» /



Eta gau horretan, / lamia /  
lagunak / mendi beltza / harri-egile  
bihurtu zuen./

Biharamunean, / hortxe zegoen  
lanean / harri-egilea. / Hurbildu zitzaion  
orduan / lamia adiskidea. /

- «E! // Bidaia ederra egin duzu!!! //  
Gauza asko ikusi, / ikasi, / Baina uste  
dut nik, / orain, / hobe dugula gelditzea:  
// zu hargin // eta ni // lamin. //

### "Martintxo eta basajaunak" ipuina

Haran horretako / herri horretan,  
/ogirik ez daukate, / garirik ez daukate. /  
Alta badakite zer den, / badakite ere /  
Basajaunek, / mendi aldean, / erabiltzen  
dutela. // Baina, / nola egin hori /  
lortzeko, / eskuratzeko? / Ez dakite. /  
Behin, / elkartuak ziren herriko  
enparantzan herritar guziak eta  
eztabaidatzen. // Orduan, / hurbildu  
zitzaien / herriko mutil gazte hori: /  
Martintxo. //

- Ni / joango naiz / Basajaunen ikustera,  
/ eta / hauekin / dena / konpontzera! /

- Zu / Martintxo? /

- Bai, / ni! /

Orduan, / Martintxo / bere etxean  
sartu da, / eta laster atera / bota handi  
batzuk soinean. / Enparantza / zeharkatu  
/ eta / etxeen artetik, poliki-poliki  
herritik urrundu. /

Gain hartara heltzean, /  
Martintxok, / Basajaunak lanean aurkitu  
ditu, / agurtu / eta... /

- Ni / Martintxo nauzue, / salto egile  
handienena. / Nahi baduzue, / bat egingo  
dugu: / gari meta horren gainetik salto  
egiten dudala. // Eta zuek? /

- A! / Guk ere bai! /

Orduan, / Basajaun bat abiada  
hartu / eta, blop! / Salto egiten ikusi da, /  
eta / haren ondotik, bigarren batek  
abiada hartu eta gari metaren gainetik

salto egin / eta horrela, / poliki-poliki, /  
Basajaun guziek salto egiten dute. //

Martintxok bere aldian, / bere  
bota handiekin, / abiada hartu du ere bai,  
/ eta biup! / Altxatu, / eta brasta!... / Gari  
metaren erdi-erdira erori da! / Hortxe  
dago, / kezkatua, / lotsati. /

- A! // Ez dakit nik zer gertatu den! // A! /

Gariaren artetik jautsi da poliki-  
poliki, eta / Basajaunak agurtu ditu / eta  
kanpamendutik urrundu da Martintxo. /  
Hortxe utzi ditu / Basajaunak / irriz eta  
barrezka. /

- Zer ote zen apustu egile hau? / Zer  
egin nahi zuen, / hain txikia!!!! /  
Aizue!!! /

- E! / Lagunak!!! / Ikusi ote duzue zer  
egin duen honek? // Ez ditu botak hustu /  
guk egiten dugun bezala, / gari metatik  
jaustean! /

- Botak / ez hustu? / Beraz / gure gari  
aleak / lapurtu dizkigu! /

- Garia lapurtu, / guri? /

- Bai! / O! / Ohointxo! / Harrapatu behar  
dugu!! / Harrapatu behar dugu!! /

Orduan, / Basajaun guziak  
Martintxoren atzetik korrika abiatu dira.  
// Martintxok, / hantxe urrunago, /  
beherago, / korrika segitzen du. / Ahal  
duen bezala, / bere bota handiak  
soinean. / Badaki / basora heltzean, /  
salbu izango dela. / Momentu batean, /  
entzun ditu / Basajaunak hurbiltzen! /

Ikusi du ere gauza bat bere ondotik pasatzen. / Aizkora bat zen, / Basajaun batek bota ziona. / Eta korrika segitu du / Martintxok. / Basajaunak hurbiltzen direla eta azkenean, / brasta! / Sartu da hantxe, // zuhaitzen azpian, // oihan iluneko zuhaitzen azpian, / salbu da! /

Basajaunek / hori ikustean, / hortxe berean gelditu dira, / eta haserre gorrian / bueltatu, // marmarika, / murmurika, / mendi aldera. //

Martintxok / basoa zeharkatu du / eta / herrira heltzean, / enparantzan gelditu da. // Herritarrak / hurbildu zaizkio / eta bere abentura kontatzen hasi da. / Bota bat hartu gero eta / hustu du, / bigarrena ere bai / enparantza erdira, / eta herrian jendeak oihuka: /

- Martintxok / garia ekarri digu! / Ogia, / ogi aleak / ekarri ditu!!! /

- Festa bat egin behar da! /

- Festa bat? / Aizue! / Zuek ba ote dakizue garia noiz ereiten den? //

- Ez! /

Herritarrek / ez dakite! // A! / Orduan, / zenbaiten denboraren buruan, Martintxo berriz igo da Basajaunen kanpamendu aldera / eta entzun ditu hantxe esaten: /

- Gizonak ez dakite noiz ereiten den garia, / Baina guk, / badakigu! /

*Baldin baleki / hartuko luke, /*

*Baldin baleki / hartuko luke, /*

*Hostoa irtetean, / artoa ereiten, /*

*Hostoa erortzean, / garia ereiten, /*

*Ta San Lorentzotan / arbia ereiten. /*

*Baldin baleki / hartuko luke, /*

*Baldin baleki / hartuko luke, /*

*Hostoa irtetean, / artoa ereiten, /*

*Hostoa erortzean, / garia ereiten, /*

*Ta San Lorentzotan / arbia ereiten /*

*Ta San Lorentzotan / arbia ereiten. /*

Martintxok ekarri zuenean / Basajaunen sekretua herrira, // festa handi bat egin zuten, / eta, gau horretan, / Martintxo izan zen, festa horretako erregea. //

Gaur goizean, / ogi zuria jan baduzu, / hori da / Martintxok, / behin, / gari aleak, / Basajaunei lapurtu zizkielako. //

Eta / hori hala bazan, / sar dadila kalabazan, / eta atera, / zure gogoaren erdiko enparantzan. //

### 3. ERANSKINA: ABIADAREN ANALISIA

#### "Azeria eta putrea" ipuina

A zatia (ipuinaren 55-60 lerroak)

Eta igo da zeruan, gero eta gorago, gero eta gorago. Buelbaka, biraka, goiti, goiti, igan, igo, eta gaindian hantxe zeruko isiltasunean entzuten da putreak azeriari galdegiten.

B zatia (ipuinaren 70-79 lerroak)

Putrearen buztana utzita, azeria lau hankak zabal-zabala erortzen da eta beherean ikusten ditu harriak tente zeruari begira. Orduan azeria honek, oihuka, garrasika, esaten die:

- Begira!! Alde egin Alde egin hortik erortzen bainaiz!

Baina harriak ez dira mugitu eta azeria azeria harrien artean erori da ezkratxatu eta bertan hil da!!!!

#### "Harri-egilea" ipuina

A zatia (ipuinaren 14-19 lerroak)

Baina eguzkiak berotzen zuen, erretzen zuen, burua kixkailtzen zion.

- «Zer da hau, eguzkia ni baino indartsuago ala? Eguzki izan behar nuke!!! Eguzki izan behar dut!!!».

B zatia (ipuinaren 34-42 lerroak)

Eta gau horretan, lamia adiskideak, Eguzki eder-ederra hodei bihurtu zuen. Hodeia, zeruan gaindi, zerua zeharkatzen ibili zen egun osoan. Eta gero alde horretara hurbildu, mendi ilun horren inguruan ibili, lainoak egiten, euria, elurra, txingorra, kazkabarra, harria eta guziak eta mendia ez zen mugitzen!

#### "Martintxo eta basajaunak" ipuina

A zatia (ipuinaren 1-10 lerroak)

Haran horretako herri horretan, ogirik ez daukate, garirik ez daukate. Alta badakite zer den, badakite ere Basajaunek, mendi aldean, erabiltzen dutela. Baina, nola egin hori lortzeko, eskuratzeko? Ez dakite. Behin, elkartuak ziren herriko enparantzan herritar guziak eta eztabaidatzen. Orduan, hurbildu zitzaien herriko mutil gazte hori: Martintxo.

B zatia (ipuinaren 55-69 lerroak)

- Bai! O! Ohointxo! Harrapatu behar dugu!! Harrapatu behar dugu!!

Orduan, Basajaun guziak Martintxoren atzetik korrika abiatu dira. Martintxok, hantxe urrunago, beherago, korrika segitzen du. Ahal duen bezala, bere bota handiak soinean. Badaki basora heltzean, salbu izango dela. Momentu batean, entzun ditu Basajaunak hurbiltzen! Ikusi du ere gauza bat bere ondotik pasatzen. Aizkora bat zen, Basajaun batek bota ziona. Eta korrika segitu du Martintxok. Basajaunak hurbiltzen direla eta azkenean, brasta!

#### 4. ERANSKINA: BOLUMENAREN ANALISIA<sup>13</sup>

##### "Azeria eta putrea" ipuina (52-60 lerroak)

Teoria	Praktika
Laster egin du <sub>┘</sub> azeri honek <sub>┘</sub>	Laster <sub>┘</sub> egin du <sub>┘</sub> azeri honek <sub>┘</sub>
aukera! <sub>┘</sub> Ahoa <sub>┘</sub> ireki <sub>┘</sub> eta hartu <sub>┘</sub>	aukera! <sub>┘</sub> Ahoa <sub>┘</sub> ireki <sub>┘</sub> eta hartu <sub>┘</sub>
putrearen buztana! <sub>┘</sub> Eta honek <sub>┘</sub>	putrearen buztana! <sub>┘</sub> Eta honek <sub>┘</sub>
poliki-poliki abiada <sub>┘</sub> hartu du. <sub>┘</sub>	poliki-poliki abiada <sub>┘</sub> hartu du. <sub>┘</sub>
Eta igo da <sub>┘</sub> zeruan, <sub>┘</sub> gero eta	Eta igo da <sub>┘</sub> zeruan, <sub>┘</sub> gero eta <sub>┘</sub>
gorago, <sub>┘</sub> gero eta gorago, <sub>┘</sub>	gorago, <sub>┘</sub> gero eta <sub>┘</sub> gorago. <sub>┘</sub>
Bueltaka, <sub>┘</sub> biraka, <sub>┘</sub> goiti, <sub>┘</sub>	Bueltaka, <sub>┘</sub> biraka, <sub>┘</sub> goiti, <sub>┘</sub>
goiti, <sub>┘</sub> igan, <sub>┘</sub> igo, <sub>┘</sub> eta	goiti, <sub>┘</sub> igan, <sub>┘</sub> igo. <sub>┘</sub> eta
gainean <sub>┘</sub> hantxe <sub>┘</sub> zeruko	gaindian hantxe <sub>┘</sub> zeruko
isiltasunean <sub>┘</sub> entzuten da <sub>┘</sub>	isiltasunean <sub>┘</sub> entzuten da <sub>┘</sub>
putreak <sub>┘</sub> azeriari galdegiten: <sub>┘</sub>	putreak <sub>┘</sub> azeriari <sub>┘</sub> galdegiten: <sub>┘</sub>

##### "Harri-egilea" ipuina (50-61 lerroak)

Teoria	Praktika
Orduan sentitu zuen <sub>┘</sub> bere oinetan	Orduan <sub>┘</sub> sentitu zuen <sub>┘</sub> bere oinetan
beherean <sub>┘</sub> holako txik-txik-txik	beherean <sub>┘</sub> holako txik-txik-txik <sub>┘</sub>
zerbait <sub>┘</sub> .	zerbait <sub>┘</sub> .
«Hau <sub>┘</sub> zer da <sub>┘</sub> ?»	«Hau <sub>┘</sub> zer <sub>┘</sub> da <sub>┘</sub> ?»
Beherera <sub>┘</sub> behatu <sub>┘</sub> eta ikusi, <sub>┘</sub>	Beherera behatu <sub>┘</sub> eta ikusi, <sub>┘</sub>
gizon bat, <sub>┘</sub> mailu bat eskuan <sub>┘</sub> eta	gizon bat, <sub>┘</sub> mailu bat eskuan <sub>┘</sub> eta
zizela bestean, <sub>┘</sub> tin-tin-tin-tin-tin	zizela bestean, <sub>┘</sub> tin-tin-tin-tin-tin
jotzen. <sub>┘</sub> Harri-egile bat! <sub>┘</sub>	jotzen. <sub>┘</sub> Harri-egile bat! <sub>┘</sub>
«Ou! <sub>┘</sub> Ou! <sub>┘</sub> Horrela <sub>┘</sub> jarraitzen	«Ou! <sub>┘</sub> Ou! <sub>┘</sub> Horrela jarraitzen
badu <sub>┘</sub> honek, <sub>┘</sub> puskatuko nau, <sub>┘</sub>	badu <sub>┘</sub> honek, <sub>┘</sub> puskatuko nau, <sub>┘</sub>
lurrera <sub>┘</sub> botako nau! <sub>┘</sub> Harri-	lurrera botako nau! <sub>┘</sub> Harri-
egile <sub>┘</sub> izan behar dut, <sub>┘</sub> harri-	egile <sub>┘</sub> izan behar dut, <sub>┘</sub> harri-
egile <sub>┘</sub> izan behar dut <sub>┘</sub> nik!!! <sub>┘</sub> »	egile <sub>┘</sub> izan behar dut <sub>┘</sub> nik!!! <sub>┘</sub> »

<sup>13</sup> Bolumenaren analisisian berdez nabarmenduta dauden ikurrak auresandakoaren eta Koldo Amestoy ipuin kontalariak erabilitako bolumenaren artean dauden desberdintasunak markatzeko egin da.

**"Martintxo eta basajaunak" ipuinak (40-53 lerroak)**

Teoria	Praktika
Gariaren artetik <sup>⊥</sup> jautsi da <sub>⊥</sub>	Gariaren artetik <sub>⊥</sub> jautsi da <sub>⊥</sub>
poliki-poliki, <sup>⊥</sup> eta Basajaunak <sup>⊥</sup>	poliki-poliki, <sub>⊥</sub> eta Basajaunak <sup>⊥</sup>
agurtu ditu <sub>⊥</sub> eta kanpamendutik <sup>⊥</sup>	agurtu ditu <sub>⊥</sub> eta kanpamendutik <sub>⊥</sub>
urrundu da <sub>⊥</sub> Martintxo <sup>⊥</sup> . Hortxe	urrundu da <sub>⊥</sub> Martintxo <sub>⊥</sub> . Hortxe <sub>⊥</sub>
utzi ditu <sub>⊥</sub> Basajaunak irriz eta	utzi ditu <sub>⊥</sub> Basajaunak <sub>⊥</sub> irriz eta
barrezka. <sup>⊥</sup>	barrezka. <sup>⊥</sup>
- Zer ote zen <sub>⊥</sub> apustu egile	- Zer <sup>⊥</sup> ote zen <sub>⊥</sub> apustu egile
hau? <sup>⊥</sup> Zer <sup>⊥</sup> egin nahi zuen, <sub>⊥</sub>	hau? <sup>⊥</sup> Zer <sup>⊥</sup> egin nahi zuen, <sub>⊥</sub>
hain txikia!!!! <sup>⊥</sup> Aizue!!! <sup>⊥</sup>	hain txikia!!!! <sup>⊥</sup> Aizue!!! <sup>⊥</sup>
- E! <sup>⊥</sup> Lagunak!!! <sup>⊥</sup> Ikusi ote	- E! <sub>⊥</sub> Lagunak!!! <sub>⊥</sub> Ikusi ote
duzue <sub>⊥</sub> zer egin duen <sub>⊥</sub> honek <sup>⊥</sup> ?	duzue <sub>⊥</sub> zer egin duen <sub>⊥</sub> honek <sub>⊥</sub> ?
Ez <sup>⊥</sup> ditu <sub>⊥</sub> botak <sup>⊥</sup> hustu <sub>⊥</sub> guk <sup>⊥</sup>	Ez <sub>⊥</sub> ditu <sub>⊥</sub> botak <sup>⊥</sup> hustu <sub>⊥</sub> guk <sup>⊥</sup>
egiten dugun <sub>⊥</sub> bezala, gari	egiten dugun bezala, <sub>⊥</sub> gari
metatik <sup>⊥</sup> jaustean! <sub>⊥</sub>	metatik <sup>⊥</sup> jaustean! <sub>⊥</sub>
- Botak <sup>⊥</sup> ez <sup>⊥</sup> hustu? <sub>⊥</sub> Beraz <sup>⊥</sup> gure	- Botak <sup>⊥</sup> ez <sup>⊥</sup> hustu? <sub>⊥</sub> Beraz <sup>⊥</sup> gure
gari aleak <sup>⊥</sup> lapurtu dizkigu! <sub>⊥</sub>	gari aleak <sup>⊥</sup> lapurtu dizkigu! <sub>⊥</sub>

## 5. ERANSKINA: INTONAZIOAREN ANALISIA<sup>14</sup>

### "Azeria eta putrea" ipuina (1-8 lerroak)

Teoria	Praktika
Elurra↑ egingo zuela↑ esan	Elurra↑ egingo zuela↑ esan
zuten↓. Orduan↑ gizonek↑	zuten↓. Orduan↑ gizonek↑
egurrak↑ bildu,↑ etxean↑ sartu↑	egurrak↑ bildu,↑ etxean↑ sartu↑
eta suak↑ piztu↓, egin zezala↓	eta suak↑ piztu↑, egin zezala
elurra↓!!! Abereek↑ aspalditik↑	elurra↓!!! Abereek↑ aspalditik↑
bazekiten↓ elurra↓ egingo zuela↓.	bazekiten↓ elurra↑ egingo zuela↓.
Orduan↑ bakoitza↑ sartu↓ bere	Orduan↑ bakoitza↑ sartu↓ bere
zuloan,↓ bere txokoan,↓ bere	zuloan,↓ bere txokoan,↓ bere
ohantze bero eta goxoan,↓ egin	ohantze↑ bero eta goxoan,↓ egin
zezala↓ elurra!!! ↓	zezala↓ elurra!!! ↑

### "Harri-egilea" ipuina (1-8 lerroak)

Teoria	Praktika
Behin bazen↑ harri-egile bat,↑	Behin bazen↑ harri-egile bat,↑
harri↑ egiten,↓ harri↑ pikatzen↓	harri↑ egiten,↓ harri↑ pikatzen↓
kixki eta kaska,↓ bere mendi	kixki eta kaska,↑ bere mendi
aldean↓ ari zena↓. Herriko↑	aldean↓ ari zena↓. Herriko↑
jendeentzat↑ etxeak↑ eginik,↓	jendeentzat↓ etxeak↑ eginik,↓
jaun handientzat↑ palazioak↑	jaun handientzat↓ palazioak↑
eraikirik,↓ lan asko↑ egin zuen,↓	eraikirik,↓ lan asko↑ egin zuen,↓
eta diru guti↑ irabazi↓. Holako	eta diru guti↑ irabazi↓. Holako
batez↑ etxean zegoela,↑ aberats	batez↑ etxean↑ zegoela,↓ aberats
izatea↑ gogoratu zitzaion.↓	izatea↑ gogoratu zitzaion.↓

<sup>14</sup> Intonazioaren analisisian berdez nabarmenduta dauden ikurrak aurrez aurrekoaren eta Koldo Amestoy ipuin kontalariak erabilitako intonazioaren artean dauden desberdintasunak markatzeko egin da



**"Martintxo eta basajaunak" ipuina (1-10 lerroak)**

Teoria	Praktika
Haran hortako↑ herri hortan,↑	Haran hortako↑ herri hortan,↑
ogirik↑ ez daukate,↓ garirik↑ ez	ogirik↑ ez daukate,↓ garirik↑ ez
daukate↓. Alta↑ badakite↓ zer	daukate↓. Alta↑ badakite↑ zer↑
den,↓ badakite ere↓ Basajaunek,↑	den↓, badakite ere↑ Basajaunek,↑
mendi aldean,↑ erabiltzen	mendi aldean,↑ erabiltzen
dutela↓. Baina,↑ nola egin↓ hori↑	dutela↓. Baina,↑ nola↑ egin↓ hori↑
lortzeko,↓ eskuratzeko↓? Ez↑	lortzeko,↓ eskuratzeko↓? Ez↑
dakite↓. Behin,↑ elkartuak ziren↓	dakite↓. Behin,↑ elkartuak↑ ziren↓
herriko↑ enparantzan↑ herritar	herriko↑ enparantzan↓ herritar
guziak↑ eta eztabaidatzen.↑	guziak↓ eta eztabaidatzen.↓
Orduan,↑ hurbildu zitzaien↓	Orduan,↑ hurbildu zitzaien↓
herriko↑ mutil gazte hori: ↑	herriko↑ mutil gazte hori↑:
Martintxo.↑	Martintxo.↑